

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2022-12-23 OSTIRALA / 844. ZENBAKIA / 2. AROA  
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM





Begoña Zestau Baraibarrek Lakuntzako Udalaren harrera ekitaldian hitza hartu zuen. ARTXIBOA

# Sakanara etorritakoen %81 estatutik etorri da

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak ibarrera etortzen diren pertsonen harrera egiteko "oinarri sendoa" sortu du, baina etortzen diren pertsonen errealitatera egokitzeko etengabeko ahalegina egiten du

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Sakanak 2001ean 19.392 biztanle zituen eta 2021ean 20.273. 881 herritarren hazkundera izan zen, (%4,54). Denbora tarte horretan 3.947 jaiotza eta 3.879 heriotza izan ziren ibarrean, hau da, 68 jaiotza gehiago. Pertsonen joan etorriak ere eragiten diote populazioaren datuari: 15.393 pertsona etorri ziren eta 14.008 joan 2001 eta 2021 artean, 1.385 sakandar berri gehiago daude. "Geroz, Sakanak biztanleria irabazi du jaiotza gehiago daudelako eta joan baino pertsona gehiago etorri direlako. Beti ere, Sakana kontuan hartuta, herri bakoitzak bere errealitatea baitu", azaldu du Begoña Zestau Baraibarrek, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun teknikariak.

Aztertutako bi hamarkadetan "pertsonen etengabeko joan-etorria

egon da. Etorri diren gehienak gazteak dira" azaldu du teknikariak. "Etorri berriez aritzean migratzaile jakin batzuen irudia etortzen zaio jendeari burura. Estereotipoak izanen dira". Zestauk gaineratu duenez, "20 urte horietan integrazioarako, baterako eta besterako Sakanako Mankomunitateak Nafarroako Gobernutik jaso dituen dirulaguntzak, orokorrean, estatutik kanpo etorritako pertsonen bideratu zaizkie, haien integrazio edo inklusioa sustatzeko. Horrek indarra hartu du". Baina teknikariak, "errealitatea hori ez" dela ziurtatu du, eta datuei erreparatu die: "etorritakoen %47 Nafarroatik etorri da. Estatutik (Euskadi barne) %34 eta estatutik kanpoko %18,96 etorri dira 20 urtetan". Azken zifra horri erreparatzen dio jendeak "estereotipoengatik, irudipenengatik edo, akaso, his-

toria memoria ahaztua edo galdua dugulako. Halakoetan bestearen lekuan jartzearena ez dugu oso presente izaten", Zestauren iritiz. Eta gogoratu du ibarrera aurretik ere estatutik jende asko etorri izan dela. Bestetik, migratzaileek bizi-modu hobe baten bila egindako itsas bidai edo hesiak gainditzeko ahaleginak hedabide handietan emateko moduak ere eragina badu azken zifrari erreparatzeko garaian. Teknikariak esan duenez, "halako berri edo irudien aurrean kritikoak izan behar dugu, bestela, migratu nor kontsideratzen dugun hitz egiten bukatuko genuke. Zeren, esaterako, Nafarroan bertan barne migrazioak daude". Bestalde, sakandarrak ere emigratu egiten dute: %52 Nafarroako beste tokiren batera doaz, %30,96 estatuko beste lurralde batera eta %8,03 estatutik kanpora.

## Zergatiaz, premiez

Etorritako askorekin harremana izan du Zestauk zerbitzuan 2008tik. "Sakanara etortzen diren pertsonak, orokorrean, bizi baldintzak hobetzeko etortzen dira, lana bilatzera, krisitik ihesi, ikastera etortzen denik ere bada... Edo bere bizia salbatu nahian babes bila etortzen dena, azken aldian hori da arrazoietakoa bat. Etxebizitza merkeago den lekuetara ere mugitzen da jendea. Familia elkartzeko edo sortzeko etortzen denik ere bada. Gutxi batzuk afektibotasunagatik etortzen dira". Etortzeko arrazoiaren atzean horiek leudeke Zestauk jakinarazi duenez, baina "etorri direnek dituzten antzeko arrazoiengatik joaten da jendea Sakanatik ere".

Mank-en zerbitzuaren helburua da "bertaratzen den edozein pertsonari ahalik eta harrera egokiena egitea da". Zestauren atean jotzen dutenen premiak honakoak dira: lana, euskara eta gaztelania ikastea, sorterriko prestakuntza tituluak homologatzea, etxebizitza bilatzea. "Ez da asko hitz egiten, baina oso garrantzitsua da dolua lantzea. Migratzen duten pertsona guztien dako komuna da, migrazio guztiek dolua baitute", gaztigitu du Zestauk. "Min hori, zure sorterrria, zure ohiturak, zure etxebizitza, familia utzi beharra, ingurunea, paisaia, zure ama hizkuntzan hitz egiteko aukera, osasungintza, dituzun ikasketen lotutako lanetan ezin lan egitea... hori guztia ez izatearen min horri deitzen diogu dolua". Teknikariak nabarmendu duenez, "integrazioarako bide horretan, pertsona emozionalki ahalik eta hobekien aurki dadin, hori guztia lantzeko denbora asko behar da". Sakana uzten dutenei ere gauza bera gertatzen zaie joaten diren tokira joaten direla.

## Harreraz

Zestauk azaldu duenez, "ahal den neurrian, eta ditugun baliabide eta aukerekin, eskaera horiei erantzuna ematen saiatzen gara. Anitzartean zerbitzuetatik ezin bada eman, erantzuna emanen dieten espezializatutako zerbitzuetara bideratzen ditugu pertsonak".

Bitartekaritza zerbitzua norabide horretan pauso bat da. Sakandar berrien artean talde esanguratsua da Magreben jatorria duena. "Egunerokoan dauden zailtasunak, hizkuntza ez dugulako ulertzen edo batzuen eta besteen kultur gakoak desberdinak direlako. Bitartekariak bi komunitateen arteko bi komunitateen mezuak ulertzen direla bermatzen du eta bi komunitateen ohiturak, funtzionamenduak, bizia ulertzeko modua, baloreak eta abar elkarri ezagutzera ematen ditu, gatazkak ekiditeko eta elkar ulertzeko".

Aitortu du pertsona adina errealitate daudela eta, horregatik, zerbitzua "beti egokitzen eta hobetzen ari da". Teknikariak azpimarratu duenez, "harrera egoki baterako oinarria sendotu da. Baina beti erne gaude, iristen zaizkigun hainbat errealitatera egokitzen. Sakanara etorri nahi duen edozeinek ateak irekiak ditu. Nahiz eta, oraintxe bertan bizi dugun krisi honek gauzak ez dituen asko errazten".

Bestetik, Anitzarteanek "aukera eskaintzen die pertsona horiei dakartena guri erakusteko. Hortaz, denak aberasteko aukera da. Inklusioan, harrera horretan, parte aktiboa izateko aukera da". Hori ere modua da "elkarbizitza baikorraren alde guztiok eragiteko aukera izatea" ere eskaintzen du zerbitzuak. "Hitza ere ematen diegu, nahi dutena edo luketena, desioak esan edo proposamenak egiteko aukera eman. Eta guztiok komunean ditugun gauzez jabetzea eta horiek indartzea ere eskaintzen du zerbitzuak. Izan daitezkeen desberdintasunak aberastasan gisa ikusi eta komunean duguna indartzeko", azaldu du Zestauk.

Zestauk jakinarazi duenez, "zerbitzuak antolatzen dituen %90etik gora sakandarrek proposatutako jarduerak dira. Guztiak, besteak beste, harrera egokia egin eta elkarrekiko ditugun estereotipoak hausten joatea dute helburu". Hori guztia Sakanako gizarte eta erakundeekin elkarlanean.



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA


Biztanleriari erreparatuta, egiten den herrien eta ibarraren argazki finkoak gutxi irauten du bere horretan, datuek erakusten dutenez Sakanan populazioaren bilakaera etengabea baita. Ibarrera jendea bizitzera etortzen den bezala, joan ere, joaten da. Joan etorri horiek pertsona batzuek bakarrik egiten dituzte, besteek familiarekin. Han edo hemen opatutako lana, etxebizitza edo bizi proiektuak baldintzatzen ditu populazio mugimenduak.

**Etorri**

Sakanara bere bizi proiektua garatzera jendea etortzen da, aztertutako aldian 15.393 pertsona. Baina bi hamarkadetan etorrera ez da homogenea izan. Finantza arloak eragindako ekonomia krisiaren aurretik etorritako pertsonen kopuruak hazkunde handia izan zuen. 2001 eta 2007 urteen artean izan zen hori. Ekonomia krisia lehertu eta 2007an Sakana 940 pertsona hartzetik 2014an 532 jasotzera pasa zen. Bitarte horretan behe-rako joera mantendu zen, baina 2015etik gorakoa da joera, nahiz eta mende hasierakoa baino motelagoa izan.

Mendeko lehen bi hamarkadetan Sakanara bizitzera etorritakoen %47 (7.234) nafarrak ziren, %34,04 (5.240) estatuko beste erkidegoren batetik lekuadatuzen Sakanara eta %18,96 (2.919) estatutik kanpotik iritsi ziren. Udalerrien ehunekoari erreparatuta nafar gehienak hartu dituztenak Arakil (%70,33) Bakaiku (%65,59) eta Urdiain (%64,49) izan ziren. Nafar gutxien jaso zutenak, berriz, Olatzagutia (%34,06), Altsasu (%37,94) eta Ziordia (%40,06). Hain zuzen ere hiru herri horietara estatuko beste erkidegoren batetik etorritakoak nafarrak baino gehiago izan ziren. Gipuzkoa eta Arabako gertutasunak zerikusia izan dezake horretan. Haiekin batera irintar berrien %43 ere beste erkidego batekoa da. Azkenik, estatutik kanpo etorritako gehien hartu dituzten herriak dira Olatzagutia (%29,29), Irurtzun (%22,52), Iturmendi (%21,49) eta Altsasu (%19,35). Beste muturrean daude Irañeta (%7), Arakil (%8,54) eta Urdiain (%8,62).

Bestetik migrazio hori hartzen duten herrien artean aldeak dau-

**Mugimenduen eboluzioa Sakanan**

# Populazioa hartzen dugu

Etorritakoen eta joandakoen arteko aldea 1.385 sakandar berri da. Etorritakoen %47 nafarrak dira, %34 beste erkidegoetakoak eta %19 estatutik kanpokoak. Joaten direnak: %52 Nafarroara, %31 beste erkidego batera eta %8 estatutik kanpora

de. Ehunekoak kontuan izanik, pertsona gehien hartzen duten udalerriak Altsasu (%34,35), Irurtzun (%15,66), Olatzagutia (%9,54), Etxarri Aranatz (%9,22), Arakil (%6,09), Lakuntza (%5,68) eta Arbizu (%5,28) dira. Populazioa erakartzeko horretan Iruñearekiko gertutasunak eragina izan dezake Arakilen eta Irurtzunen. Gainera, ibarreko herri kokorrenak zerrenda horretan daude, eta agian etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago daude. Ehunekoak kontuan hartuta, herritar gutxien hartzen duten herrien artean daude: Arruazu (%0,5), Irañeta (%0,65), Bakaiku (%1,21), Ergoiena (%1,21), Ziordia (%2,06), Iturmendi (%2,27), Urdiain (%2,49) eta Uhartea Arakil (%3,49).

**NAFAR GEHIEN HARTU ZITUZTENAK: ARAKIL (%70,33) BAKAIKU (%65,59) ETA URDIAIN (%64,49)**

**Joan**

Sakandarrek ere emigratzen dute, 2001 eta 2021 artean 14.008 izan ziren. Ibarretik joandakoen kopuruak goranzko joera izan zuen 2007ra arte. 2008tik, gorabeherekin, sakandarren emigratzeko joera 700 pertsonaren bueltan egonkortuta dagoela esan daiteke. Hala ere, aipagarria da finantza arloak eragindako krisiaren ondorioz 2010 eta 2016 urteen artean Sakanatik jende gehiago joan zela etorri baino. Gainontzeko aldi guztietan gehiago izan dira ibarrera bizitzera etorritako pertsonak.

Sakanatik emigratutakoen %57,16 (8.007) Nafarroako beste herriren batean bizi da, %34,02k (4.765) estatuko beste erkidego batean du helbidea eta %8,82 (1.236) estatutik kanpo joan zen. Sakanatik Nafarroara emigratu duten ehunekoari erreparatuta, aukera hori gehien erabili duten arakildarrak (%78,98), erguendarrak (%74,37), irintarrak (%73,81), iturmendiarrak (%71,38)

eta ubertearrak (%70,77) izan dira. Nafarroan bizitokia gutxien bilatu dutenak altsasuarrak (%44,05), ziordiarrek (%48,51), olaztiarrak (%52) eta arbazuarrak (%53,49) izan dira. Beste erkidego batera emigratu duten sakandarren batzuek gora daude arbazuarrak (%46,51), altsasuarrak (%43,52), ziordiarrek (%44,35), etxarriarrak (%36,28) eta olaztiarrak (%35,73). Norabide hori hartu dutenen ibarreko ehunekoaren azpitik daude, berriz, Arakil (%16,69), Ergoiena (%22,69) eta Iturmendi (%24,16). Azkenik, estatutik kanpo gehien emigratu dutenak altsasuarrak (%12,43), olaztiarrak (%12,27) eta irurtzundarrak (%9,4) dira. Ibarreko gainontzeko 13 udale-

**NAFAR GUTXIEN JASO ZUTENAK: OLAZTI (%34,06), ALTSASU (%37,94) ETA ZIORDIA (%40,06)**

riak Sakanakoaren batzuek beste ehunekoaren azpitik daude. Nabarmen Arruazu, herritar bat bera ere ez baita estatutik kanpo bizitzera joan. Emigrazio aukera horrek ere segida gutxi izan du Irañetan (%1,19), Ergoienan (%2,94) eta Urdiainen (%3,07).

Herria utzi zuten biztanleen ehunekoari erreparatuz gero, gehienak altsasuarrak izan ziren (%32,57). Ondoren heldu dira Irurtzun (%18,22), Olatzagutia (%10,53), Etxarri Aranatz (%9,21) eta Arakil (%5,43). Zerrendak bat egiten du populazio gehien hartzen duen udalerriekin. Bestetik, emigrazio gutxien duten udalerriak dira: Arruazu (%0,31), Irañeta (%0,6), Bakaiku (%1,16), Ergoiena (%1,7), Iturmendi (%1,92), Ziordia (%2,4) eta Urdiain (%2,79). Hain justu populazio gutxien hartzen dutenak.

**Herriz herri**

**Arakiler**a 2001 eta 2021 artean 937 pertsona etorri ziren, Sakanako migrazioaren %6,09 hartu zuen. Aldi horretan, berriz, Arakildik 761 pertsonak migratu zuten, ibarrekoen %5,43. Beraz, bi hamarkada horietan Arakiler etorritakoak 176 gehiago dira (Sakanako joan etorrien ehunekoak kontuan hartuta 0,65 puntu handiagoa). Arakilek bi hamarkada horietan hartu zituen biztanle berrien %70,33 (659) nafarrak ziren, %21,13 (198) estatuko beste erkidegoren batekoak eta %8,54 (80) estatutik kanpokoak. Emigratutako arakildarren %78,98 (601) foru erkidegoko beste herriren batera joan zen, %16,69 (127) estatuko beste erkidegoren batera eta, azkenik, %4,34 (33) estatutik kanpo opatu zuten bizitokia.

Aztertutako epean Arakilek 2007ra arte herritarrek hartzeko joera positiboa zuen. Baina krisiarekin batera migratzaileak hartzeko joera aldatu eta behe-rantz egin zuen, nahiz eta 2012, 2014 eta 2019an igoera handiak izan. Arakildarren emigrazioan epe horretan bi aldi nabaritzen dira. 2011 eta 2012 urteak dira erpina, aurretik arakildarrak ibarretik kanpo joateko joera goranzkoa zen. Orduetik behera egin du arakildarrek herriak uzteko joera. Bi hamarkadetan zortzi urtetan arakildar gehiagok emigratu dute, ibarrera etorri direnak baino.

**Irurtzun**ek 2.411 pertsona hartu zituen aztertutako epean,

ibarrera etorritakoen %15,66. Aldi berean emigratu zuten irurtzundarrak 2.552 izan ziren, ibarrekoen %18,22. Populazioaren mugikortasunaren ondorioz, Irurtzunek 141 herritar galdu zituen (2,56 puntu gutxiago). Irurtzundar berrien %51,8 (1.249) nafarra da, %25,67 (619) estatuko beste erkidego batekoa eta %22,52 (543) estatutik kanpo etorri da. Epe horretan emigratu duten irurtzundarren %64,44 (1.650) Nafarroan bertan bizi da, %25,94 (662) estatuko beste erkidego batean du bizitokia eta %9,4 (240) estatutik kanpo bizi da.

Urtetik urtera gero eta herritar berri gehiago hartu zituen Irurtzunek 2006ra arte. Orduan goia jo eta beheranzko joera hartu zuen migrazioak, 2014ra arte. Orduetik gorako joerari eutsi dio, 2019an kasik 2006ko mailara iritsi arte. Azken bi urteetan behera egin du irurtzundar berrien iritsierak. Emigrazioari dagokionez, herria uzteko irurtzundarren joera goranzkoa izan zen 2009ra arte. Krisia lehertu zen eta asko izan ziren herrian gelditzeko hautua egin zutenak. Orduetik berriro Irurtzundik alde egiteko joerak gorako bidea hartu du, nahiz eta gorabeherak izan. Bi hamarkada horietan irurtzundar gehiago joan dira 12 urtetan etorri direnak baino.

**Irañetara** 100 pertsona iritsi ziren bi urte horien artean, Sakanara etorritakoen %0,65. Joandako irintarrak, berriz, 84 izan ziren, emigratu zuten sakandarren %0,6 (0,005 puntuko alde positiboa). Irintar berrien %50 (50) foru erkidegotik etorritakoak dira, %43 (43) estatuko beste erkidegoetatik etorritakoak dira eta %7 (7) estatutik kanpokoak dira. Migratutako irintarren %73,81 (62) Nafarroako herri batean du bizitokia, %25 (21) estatuko beste erkidego bat eta %1,19 (1) estatutik kanpo bizi da.

Irañetak herritar berriak hartzeko 2003tik duen joera beheranzkoa da, nahiz eta 2003an eta 2015ean kopuruak nabarmen gora egin. Eta aztertutako epean irintarren emigratzeko joerak gorako norabidea du, nahiz eta azken hiru urteetan zertxobait leundu. 20 urtetatik hamaiketan emigrazioa migrazioaren gainetik egon da Irañetan.

**Uharte Arakilek** denbora birtarte horretan 537 pertsona hartu zituen, Sakanara migratutakoen %3,49. Garai berean 520 ubertea-



Sakandarrek Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak antolatutako jardueran.

rrek hartu zuten kanpoan bizitokia, migratutako sakandarren %3,71, hain zuzen. Biztanleria mugimenduen ondorioz Uharte Arakilek 17 biztanle irabazi ditu (0,22 puntu alde). Nafarrak dira Uharte Arakileren migratu dutenen %57,36 (308), %25,88 (139) estatuko beste erkidego batetik iritsi dira eta estatutik kanpo etorritakoak %16,76 (90) dira. Joandako ubertearren %70,77 (368) Nafarroan bizi da, %25,19 (131) estatuko beste erkidegoren batean eta %4,04 (21) estatutik kanpo.

Herritar berriak jasotzeko joera 2007ra arte nagusitu zen Uharte Arakilen. Krisiarekin beheranzko joera nagusitu zen, 2013an hondoa jo arte. Orduetik ubertear berriak jasotzeko joera positiboa izan da. Ubertearrek emigratzeko

## NAFARROATIK BAINO ERKIDEGOETATIK GEHIAGO ETORRI ZIREN ALTSASU, OLAZTI ETA ZIORDIARA

ko joera 2001 eta 2005 artean, 2010ean eta 2015ean nabarmendu zen gehien. Azken data horretatik aurrera ubertearrek herria uzteko joerak beherako joera hartu zuen. Bi hamarkada horietan joan direnak etorri direnak baino gehiago izan dira 14 urtetan.

**Arruazu** azken bi hamarkadetan 77 pertsona jaso ditu, ibarrak hartu dituenen %0,5. Bestetik, herria utzi duten arbazuarrak 43 izan dira, migratutako sakandarren %0,31. Mugimenduek 34 pertsonaren hazkundera utzi dute herrian (0,19 puntuko alde). Arbazuarrak berrien %59,74 (46) foru erkidegoko beste herri batetik iritsi da, %27,27 (21) estatuko beste erkidegoren batetik eta %12,99 (10) estatutik kanpo. Joandako arbazuarren %53,49 Nafarroan bertan bizi dira, %46,51 beste erkidegoren batean eta inore ez estatutik kanpo.

Krisia hasi zen urtean migratu zuen jende gehienak Arruazura. Orduan arteko joera oso egonkorra zen. Orduetik arbazuarrak hartzeko joerak behera egin zuen, nahiz eta 2012 eta 2017an igoera

puntualak izan. Emigrazioari dagokionez, arbazuarren herria uzteko joera 2008ra txikiagoa zen, ondoren, gorako joera hartu baitzuen. Bi hamarkadetan zortzitan joan da jende gehiago Arruazutik etorri baino eta beste hirutan kopurua bera izan da.

**Lakuntzak** 875 biztanle berri hartu zituen, Sakanara etorritako pertsonen %5,68. Herria utzi zuten lakuntzarrak, berriz, 665 izan ziren, ibarra utzi zutenen %4,75. Populazioaren mugimenduek 210 lakuntzar berri utzi ditu (0,94 puntuko alde). Lakuntza bizilekutzat hartu zuten herritarren %57,94 (507) nafarrak dira, %27,89 (244) estatuko beste erkidegoren batetik etorri zen eta %14,17 (124) estatutik kanpo iritsi zen. Lakuntzatik emigratu dutenen %64,06 (426) Nafarroako beste txokoren bat aukeratu du bizitoki gisa, %29,92k (199) estatuko beste erkidegoren bat eta %6,02 (40) estatutik kanpo bizi da.

Mende hasieratik 2006ra arte lakuntzak herritar berriak hartzeko goranzko joera izan zuen. Orduetik, gorabeherekin, herritarrek hartzeko joerak behera egin du Lakuntzan. Herritar berri gutxien hartu zuen urtea 2013 izan zen. Orduan arteko beheranzko joeran zuzendu zen. Emigrazioari dagokionez, igoera txikiarekin, baina lakuntzarrek herria uzteko joera gorakoa da bi hamarkada horietan. Seitan izan dira emigratuak migratuak baino gehiago, tartean azken bi urteak.

**Arbizuk** 812 migratzaile jaso zituen, Sakanakoen %5,28. Arbizutik emigratu, berriz, 658k egin zuten, ibarrekoen %4,7. Populazio mugimenduek Arbizun 154 herritarren hazkundera utzi zituen (0,58 puntuko alde). Arbizuk bi hamarkadetan hartutako migratuen %51,85 (421) nafarrak dira, %29,93 (243) estatutik etorritakoak eta %18,23 (148) estatutik kanpokoak. Emigratutako arbizuarrei dagokionez, %65,05 (428) Nafarroan bertan bizi da, %30,4 (200) estatuko beste erkidego batean eta %4,56 (30) atzerrian.

## ESTATUTIK KANPO ETORRITAKO GEHIEN HARTU ZITUZTENAK: OLAZTI, IRURTZUN ETA ITURMENDI

Herriak arbizuar berriak hartzen aritu zen 2007ra arte. Krisia lehertu ondoren, Arbizuk hartutako pertsona migratuen kopuruak beherako joera hartu zuen, nahiz eta 2013 eta 2019an igoera nabarmenak izan. Emigrazioari dagokionez, 2005era arte arbizuarrek herritik kanpo joateko joera goranzkoa izan zen. 2007an jaitsi egin zen, baina orduetik herria uzteko gorako joera txikia sendotzen ari da. Goia 2019an jo zuen. Bi hamarkadetan seitan izan dira gehiago Arbizutik joan direnak etorri direnak baino.

**Ergoienak** 2001 eta 2021 artean 235 pertsona jaso zituen, Sakanara etorritakoen %1,53. Emigratu, berriz, 238 pertsonak emigratu zuten, ibarrekoen 1,7 dira ergoendarak. Ondorioz, bi hamarkada horietako populazio mugimenduekin Ergoienak hiru biztanle galdu zituen (0,17 puntuko galera). Ergoienak hartutako herritarren %56,6 (133) nafarrak dira, %29,36 (69) estatuko beste erkidegoren batetik iritsi da eta %14,04 (33), berriz, estatutik kanpo. Joandako ergoendarrei dagokionez, %74,37 (177) Nafarroan bertan bizi da, %22,69 (54) estatuko beste erkidegoren batean eta %2,94 (7) estatutik kanpo du bizitokia.

Ergoienak herritar berriak hartzeko joera mantendu zuen 2009an krisiaren ondorioak nabaritzen hasi ziren arte. Orduetik 2017ra arte biztanleria galtzeko joera nagusitu zen. Baina azken lau urteetan ergoendar berrien igoera handia izan du ibarrak. Ergoienako emigrazioak ere antzeko gorabeherak ditu. 2009ra arte ibarretik joateko joera nagusitu zen, ondoren ergoendarrek herrietan gelditzearen aldeko apustua egin zuten, baina 2017tik emigratzeko joerak, atzera ere, gorako bidea hartu du. Bi hamarkadetan 13 urtetan ergoendar gehiago joan dira etorri baino, behin berdin izan ziren kopuruak.

**Etxarri Aranatzera** bi hamarkada horietan 1.419 pertsona etorri ziren, Sakanak jasotako migratzaileen %9,22 da. Beste norabait emigratu zuten etxarriarrak epe berean 1.290 izan ziren, Sakanakoen %9,21. Ondorioz herriak 129 etxarriar irabazi ditu (0,01 puntuko alde). Etxarri Aranatzera migratutakoen %48,63 (690) nafarrak ziren, %32,98 (468) beste erkidegoren batetik iritsitakoak eta %18,39 (261) estatutik kanpotik etorri ziren.

Herria utzi zuten etxarriarren %59,15 (763) Nafarroako beste herriren batean bizi da, %36,28 (468) estatuko beste erkidegoren batean eta %4,57 (59) estatutik kanpo bizi da.

Aztertutako epean etxarriar berriak hartzeko beheranzko joera izan du Etxarri Aranatzek 2015era arte. Urte hartatik aurrera herrira migratu duten pertsonak hartzeko joera handitzen ari da. Etxarriarrek emigratzeko joera ere beheranzkoa izan zen 2003 eta 2017 artean. Bi urtez igo bazen ere, azken bietan etxarriarren herria uzteko joera jaitzi egin zen. Bi hamarkada horietan hamabitan gehiago izan ziren joan zirenak etorri ziren etxarriarrek baino, eta behin izan zen kopuru bera.

**Bakaikura** denbora tarte horretan 186 pertsona etorri ziren, Sakanako migrazioaren %1,21 hartu zuen. Baina bakaikuarrak ere emigratu zuten, 163 zehazki, ibarrekoaren %1,16. Migrazio eta emigratio balantzeak 23 herritar gehiagoren emaitza utzi zuen Bakaikun (0,04 puntuko hazkundea). Bakaikuk hartu dituen herritar berrien %65,59 (122) nafarrak dira, %22,04 (41) estatuko beste erkidegoren batetik iritsi da eta %12,37 (23) estatutik kanpoko herrialderen batetik abiatu zen Bakaikura. Emigratu duten bakaikuarren %68,71 (112) Nafarroan du bizilekua, %25,77 (42) beste erkidegoren batean eta %5,52 (9) estatutik kanpo.

Bakaikuk hartutako migrazioaren 2004 urtera arteko igoerak eta 2005 eta 2011 arteko jaitziera ditu hasieran. Ondoren, joera zuzendu eta bakaikuar berriak hartzen hasi zen herria. 2015 eta 2018 izan ziren bakaikuar berri gehien iritsi ziren urteak. Denbora tarte berean bakaikuarrak herria uzteko joera ere izan dute. 2018ra arte joera nagusia zen gero eta gutxiago emigratzea, baina 2019tik aurrera joera aldatu eta gora egin du. 20 urtetan zazpitan joan dira bakaikuar gehiago etorri baino, eta lau urtetan herritarren kopuru berak alde egin du eta etorri da.

**Iturmendi** dagokionez, herriak 349 migratzaile hartu zituen, ibarrera etorritakoen %2,27. Aldi berean 269 iturmendiarrak emigratu zuten, Sakanakoen %1,92. Biztanleriaren joan-etorrien arteko diferentziak 80 iturmendiarrak gehiago utzi ditu (0,35 puntu gora). Bi hamarkadetan Iturmendira

## Sakanako biztanleria mugimenduak portzentaletan herriz herri 2001-2020



migratutako pertsonen %48,42 (169) nafarrak ziren, %30,09 (105) estatuko beste erkidego batekoak eta %21,49 (75) estatutik kanpotik etorri ziren bere bizi proiektua Iturmendin garatzera. Herria utzi eta kanpoan bizitzea erabaki zutenen %71,38 (192) Nafarroan bertan bizi da, %24,16 (65) beste erkidegoren batean eta %4,46 (12) estatutik kanpo.

Iturmendiaren berrien etorrerak eta herritarren joateak pareko bideak izan dituzte azken bi hamarkadetan. Bai migrazioak bai emigratioak goranzko joera paraleloak izan dituzte mende hasieratik. Bietan ere goia 2020an jo zuten, gerora behera egiteko. Herritar berrien etorreran hondoa 2013an jo zuen Iturmendik. Eta emigratioan 2008an. Aztertutako 20 urteetan zortzitan joan dira iturmendiarrak gehiago etorri baino, eta bitan kopurua bera izan dira.

**Urdiainen** kasuan denbora birtarte horretan 383 migratzaile jaso zituen, Sakanara etorritakoen %2,49. Aldi berean, 391 urdindarrek migratu zuten, ibarrekoen %2,79. Ondorioz, Urdiainek zortzi biztanle galdu zituen (0,3 puntu behera). Urdindar berrien %64,49 (247) nafarra da, %26,89 (103) estatuko beste erkidego batekoa eta %8,62 (33) estatutik kanpokoak. Urdiain-

**EMIGRAZIO HANDIENA DUTEN HERRIAK DIRA: ALTSASU, IRURTZUN, OLATZAGUTIA ETA ETXARRI ARANATZ**

dik beste norabait bizitzera joandakoen %67,77 (265) Nafarroan bizi dira, %29,16 (114) estatuko beste erkidegoren batean eta %3,07 (12) estatutik kanpo.

Urdindar berriak hartzeko joera nagusitu da bi hamarkada horietan, baina bi aldi izan dira. Aurrena, 2007ra artekoa eta, atzera, 2015 eta 2020 artean. Urdindar berriak etorri diren moduan, herria utzi dutenen joera orokorra ere gorakoa izan da azken 20 urteetan. Bi hamarkadetan bederatzit urtetan izan da emigratio handiagoa migrazioa baino.

**Altsasura** aztertutako aldian 5.287 pertsona etorri ziren, ibarrera etorritakoen %34,35. Denbora berean herritik 4.563 altsasuar joan ziren, joandako sakanadarren %32,57. Populazio mugimendu horiek Altsasura etorritako 724 pertsona gehiago utzi dituzte (1,77 puntu gora). Altsasuar berrien artean %42,71 (2.258 pertsona) estatutik etorritakoak dira, %37,94 (2.006) Nafarroatik eta %19,35 estatutik kanpokoak dira. Aldi horretan emigratu zuten altsasuarren lehen helmuga foru erkidegoko beste herriren bat izan zen %44,05rendako (2.010 altsasuar), estatuta joan ziren %43,52 (1.986) eta estatutik kanpoko bidea hartu zuten %12,43k.

Urte urteko joerari dagokionez, mende hasieran Sakanako joera bera mantendu zuen Altsasuk eta bai migrazioak bai emigratioak gora egin zuten 2007ra arte. 2008tik 2020ra arte herriak biztanle berriak hartzeko joera beheranzkoa izan da. Hondoa 2014an jo zuen. 2021ean igoera

handia izan zuen 2007aren pare jarri. Emigratioari dagokionez, krisiaren ondorioz, 2009 eta 2014 urteen artean altsasuarren joateko joerak gora egin zuen. 2015etik altsasuarren emigratio-rako joerak behera egin zuen, nahiz eta 2021ean gora egin zuen. Aztertutako epean emigratioa soilik lau urtetan egon da migrazioaren gainetik Altsasun, 2010, 2013, 2014 eta 2016an.

**Olatzagutia** 2001 eta 2021 urteen artean 1.468 pertsona joan ziren bizitzera, Sakanara migratutakoen %9,54. Denbora tarte horretan kanpoan bizitokia opatu zuten olaztiarrak 1.475 izan ziren, Sakanatik emigratutakoen %10,53. Populazio mugimendu horien ondorioz, herriak zazpi olaztiar galdu ditu (0,99 puntuko alde). Olaztiar berrien %36,65 (538) estatuko beste erkidego batetik iritsi zen, %34,06 (500) Nafarroatik eta %29,29 (430) estatutik kanpotik. Emigratu duten olaztiarren %52 (767) Nafarroa izan dute helmuga, %35,73k (527) estatuko beste erkidegoren bat eta %12,27 (181) joan da estatutik kanpo bizitzera.

Olaztiar berriak hartzeko joerak 2005era arte iraun zuen. Orduetik 2013ra arte beherako joera nagusitu zen. Hondoa jo ondoren, 2014tik aurrera aldatu eta, atzera

**EMIGRAZIO TXIKIENA DUTEN HERRIAK DIRA: ARRUAZU, IRAÑETA, BAKAIKU, ERGOIENA ETA ITURMENDI**

ere, gora joera nagusitu den arte. Emigratioari dagokionez, olaztiarrek herria uzteko joera 2011ra arte nagusi izan zen. Baina orduan aldaketa izan zen eta emigratzaile olaztiarren kopuruak beherako norabidea hartu zuen. Bi hamarkada horietan 11 urtetan izan da emigratio gehiago etorritakoak baino Olatzagutian. Azken lau urtetan herritarren direnak gehiago dira.

**Ziordiar** dagokionez, bi hamarkada horietan 317 herritar berri hartu zituen, Sakanara etorritakoen %2,06. Baina alde egin 336k egin zuten, ibarreko emigratuen %2,4. Biztanleria mugimenduek hemeretzi ziordiarren galera ekarri dute (0,34 puntu behera). Ziordiar berrien %47,63 (151) beste erkidego batetik etorritakoa da, %40,06 (127) Nafarroako beste herriren batetik eta %12,3 (39) estatutik kanpo etorri da. Beste bizitoki baten bila Ziordia utzi dutenen %48,51k Nafarroan segitzen dute, %44,35k (149) estatuko beste erkidego batera emigratu zuten eta %7,14 (24) estatutik kanpo bizi dira.

Ziordiarren herritar berriak hartzeko joerak 2007 urtera arte iraun zuen. Orduetik jasotako ziordiar berrien kopuruak pixkanaka behera egin du. Bestetik, herria utzi duten ziordiarren kopuruak, gorabeherekin, baina 2015era arte gora egin zuen. Orduetik herrian gelditzeko joera nagusitu da. Bi hamarkadetan zortzi urtetan joan dira gehiago etorri diren ziordiar berriak baino, eta behin berdin dira kopuruak.



ASTEKOA

RAF ATXURI

## Gabon ospakizun betean, nonbait

Halako moldez non, Durangoko Azoka haren jendetzaz eta samaldaz, stand-az ez tandan, lagun batzez eta irrikidetzaz berpiztu den atzera berriz, bisitariei dagokienez orain arteko kopuruak urratu ez baditu ere. Euskal kulturagintzaren erakusplaza dotoreena, alaiena eta oparoena galaiz jantzi eta 2019koaz atzeragoko girora eraman gaitu sorioneku, liburuz, diskoz, posterrez, Seaska egutegiaz, taloz, gaztaina errez zein Goienkaleko zurrutez.

Izan ere, birusaldiaren ahultze bortitzaren aurrean, jendarteak, krisia eta gerlak gora-behera, karrikak, ostatuak, dendak (baita online salmentak) astindu eta ohiko Eguberri festa sorta aletzeari ekin dio bare, handikiro eta goxo.

Bada, gabon gogo deritzan lege epel horretara itzuli gara ahalera kasik osoan, argi itsugarriak eta guzti; antza, gure baitako argiak aski ez izan, eta sabelari itsasoko lanak emanez eta opariak buruhauskailu, egun hauetako zurrunbilo eroan murgildu gara.

### GABON GOGO DERITZAN LEGE EPEL HORRETARA ITZULI GARA AHALERA KASIK OSOA

Afarilegeak,  
bazkarilegeak (ezen ez  
barazkilegeak), ardo  
egosiak, gabon kantaldiak,  
zozketak, Maridomingi eta  
Olentzero ere  
ahaldundurik, urteberriko  
ibilaldia, Vienatik Danubio

txit urdinean igerialdia berriz...

Eta gu hertzainen eta Maialen eta Ametsen bedeinkapenez, beheko suaren txinpartei begira elurminez agian, ondoreneko belaunaldien puskak bereganatzen ari ote garen, ez ote garen agortzen ari. Zantzu (ia) guztien arabera kontsumismoaren erromeria alaitsua hamarkada gutxitan bere azkenetara doa, gure liseriketa astunak lagun eta lekuko.

Eguberri eta urte berri on igaro.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## OBJEKTIBOTIK



Return to Basque @returntobasque

"Nekazal eszena Etxarri Aranatzen"  
Atzeko mendia Beriain izan daiteke?

Diego Quiroga y Losada, 1920 inguruan. Nafarroako Artxibategi  
Erreal Orokorreko argazkitegiaren argazkia.



# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus  
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

Koodinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# Mank-ek 6 milioi euroko aurrekontua onartu du

Urte batetik besterako aurrekontua 600.000 eurotan handitu da, batez ere inbertsioengatik, baina baita kostu batzuk igo direlako ere. Ur Zerbitzuan 209.636 euroko inbertsioak egingen ditu eta Hondakin Zerbitzuan, berriz, 644.200 eurokoa

## SAKANA

Sakanako Mankomunitateak 6.006.090 euroko aurrekontua izanen du 2023an, hala erabaki zuen batzarrak astelehenean aldeko hamahiru botorekin eta kontrako birekin (Altsasuko Geroa Baike ordezkarriak). Mank-ko presidente David Oroz Alonsok azaldu duenez, "inbertsioak izan dira aurrekontua 600.000 eurotan handitu dutenak. Baina kostuek ere gora egin dute". Batetik, energia eta bestelako kostuen hazkundera. Bestetik, Nafarroako Gobernuak administrazio publikoendako ezarritako soldata igoera.

## Ur Zerbitzua

Arlo horretan ibarreko erakundeak hiru inbertsio egingen ditu. Aurrena, Urdalurko ur arazketa plantan ozono bidezko sistema ezartzeko 74.000 euro jartzea. Orozek azaldu duenez, "ura edangarria egiteko kloroaren erabilera gutxienera murriztuko dugu eta haren ordez ozonoa erabiliko dugu. Sistema hobea eta osasungarriagoa da. Hala ere, legez, urak edangarria izateko, analisietan kloro kopuru jakin bat egon behar du eta hori besterik ez diogu botako".

Urdalurko plantara ura sartzen duen hodian elektrizitatea sor-



Urdalurko tratamendu plantan bi inbertsio egingen dira. ARTXIBOA

tzeko turbina jarriko dute, "bertako kontsumoa asetzeko". Lan horietara 85.636 euro bideratu dituzte, eta eskatutako dirulaguntzak ebatzi zain daude. Urtero 14.785 euro aurreztuko du Mank-ek eta inbertsioa 5,8 urtean amortizatuko du. Azkenik, Urdalurko plantan tratatzen den ura gaur egun Etxarren arte iristen da. Goi hornidurako ur hodia 2025ean Irurtzunera iritsiko da. Horretarako, ordea, lanen proiektu bat egin behar da ilbeltzaren 19rako. Idazketa lana aurreratua dute. Proiektu-

rako 50.000 euro bideratu ditu Mank-ek. %70 inguruko dirulaguntza du.

## Hondakin Zerbitzua

Nafarroako Hondakinaren Partzuergoaren dirulaguntzarekin Mank-ek bi inbertsio egingen ditu. Alde batetik, hondakin bilketa-rako bi kamioi erosiko ditu, bata berria (155.000 euro) eta bestea bigarren eskukoa (35.000 euro). Erosketa horietarako %70eko dirulaguntza izanen du Mank-ek, "eta baliteke bi horiekin kamioi flotaren berrikuntza bukatzea".

Bestetik, konpost plantan materiala mugitzeko pala bat erosiko du (114.000 euro) baita konposta bahetutakoan inpropioak bereizteko aire bidezko sistema duen makina ere (170.000 euro). Bi horien kostu guztia partzuergoak ordainduko du. Horietaz aparte, UtzubarEKOgunean berrerabilerarako gela muntatzeko 20.200 euro bideratuko dituzte.

## Tasak eta bestelakoak

Sakandarrek ur eta hondakin bilketa zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasak aho batez igotzea erabaki zuen Mank-eko batzarrak. "Egun pairatzen ari garen produktu, erregai, eta abarren garestitze orokorra kontuan hartuta eta jakinik 2022an ez zela inolako igoerarik aplikatu, hondakin zerbitzuko ohiko etxebizitzaren tasan 9,4 euroko urteko igoera izanen da, 93,97 eurotik 103,37ra pasaz. Uraren kasuan, metro kubiko bakoitzeko 0,45 eurotik 0,495era pasako da", argitu du Orozek.

Estreinakoz Sakanako udalek ibarreko erakundearen bidez dirulaguntza emanen diote Josefina Arregi klinika psikogeriatricoari, 60.819 euro izanen dira. "Klinika sortu zenetik Altsasun egotea eta Sakanari zerbitzua ematea izan du helburua. Mank-eko presidentea klinikaren patronatuan dago. Udalak interelatuak izan dira eta pausoa ematea erabaki dute", azaldu du Orozek. Bestetik, gizarte arloko beste bi dirulaguntzaren berri eman du: "Anfasekin aspalditik dugun hitzarmena berritzea eta 6.000 euro ematea. Zentzu berean beste hitzarmen bat sinatu dugu duela urtebeteko uholdeekin egoitza galdu zuen Biak Bat elkartearekin, berrirako 3.000 euro ekarpena egingen du Mank-ek".

## Bizikleta bidea egiteko milioi bat euro

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak milioi bat euroko zuzeneko dirulaguntza eman dio Eusko Jaurlaritzari, Irurtzun eta Agurain artean bizikleta pista bat egin eta proiektatzeko. Diru horren 300.000 euro Arabako zatirako dira eta gainontzeko 700.000ak Sakanarako. "Orain gure zatia eskuratzeko nola egin lotzen ari gara", azaldu du Orozek.

Dirua aurtengo estatuaren aurrekontutik atera da, EH Bilduk aurkeztutako zuzenketa bat dela medio. Orozek jakinarazi duenez, "bide beretik 2023an beste milioi bat euro jasoko du Nafarroako Gobernuak, Sakanako zatirako". Aurreratu duenez, "lanen aurrekontua bi milioi eurotik gertu ibiliko da. Euroveloren ibilbideen estandarretara egokitzeko makina bat lan egin behar baitira". Gauzak ongi lanak heldu den urtean hastera nahiko luketela azaldu du.

Laguntzen helburua da Plazaolako bide berdea Gasteizekin lotzea, Agurain eta Irurtzun arteko bizikleta pista baten bidez. Pista hori lehendik dauden bideguneekin lotuko da, eta, horrela, Araba eta Nafarroa artean bizikleta bide bat sortuko da.



Ez gehiago itxaron


**Eraman nazazu**

**HANDIA**  
Esne gaina / Crema  
**ERTAINA**  
Esne gaina / Crema / Trufa  
**TXIKIA**  
Esne gaina / Crema / Trufa

ZUREN 1964-GEORZIN

**Amaya**

OKINDEGIA



### ALTSASU

678 323 403  
Iruña Hiribidea, 48  
948 468 026  
Zumalakarregi Plaza, 3  
670 389 017  
San Juan Kalea, 50

948 562 185  
Ottadiko Kristo Deuna, 19

### UHARTE-ARAKIL

691 83 41 36  
Mandikoa, 3

### VITORIA-GASTEIZ

Postas, 33  
945 148 368  
Arriagako Atea, 12  
**ETXARRI-ARANATZ**  
948 461 660  
Kale Naguasía, 4

### OLAZTI

948 468 755  
Orreaga Kalea, 1

### ARAIA

945 314 572  
Andoni Urrestarazu, 3



Ziordiarrek udaletxearen parean. ARTXIBOA

# Enplegu publikoaren %69 egonkortzeko deialdiak eginak

Ibarreko tokiko erakundeetan 219 lanpostu betetzeko deialdiak eginen dira urte bukaera bitartean. Europako araudiak behartuta, administrazio publikoko langileen arteko behin-behinekotasuna %8 baino txikiagoa izan beharko du 2024ko akaberarako

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Gobernu, mankomunitate eta udalendako lan egiten duten langile publikoen artean behin-behinekotasuna handia da. Hego Euskal Herrian langile publikoen %40 inguru egoera prekario horretan daude. Estatu langile publikoen egoera orokortu horrek aldi baterakotasunaren gehiegizko erabilera debekatzen duten Europako Zuzenbidearen arauak urratzen ditu. Horregatik, Europak behartuta, estatuak administrazioetan behin-behinekotasuna %8ra arte murrizteko dekretua onartu zuen joan den urteko abenduaren 28an. Araudi horretan Europak agindutakoa betetzeko hartu beharreko premia zuzenak zehaztu ziren.

Legediak jaso duenez, egiturazko lanpostuak dira egonkortu behar direnak, beti ere, 2020ko abenduaren 31 baino lehen aldi

batez edo modu jarraian langileak izan dituztenak. Enplegu publikoaren egonkortzeko bi prozedura onartu dira. Batetik, oposizio lehiaketa deitu da 2017ko abenduaren 31 eta 2020ko abenduaren 31 artean aldi batez edo modu jarraian langileak izan dituzten lanpostuen kasuan. Bestetik, merituz lehiaketa deitu da 2016ko ilbeltzaren 1a baino lehenagotik hutsik dauden lanpostuen kasuan.

Araudiari jarraituz, toki erakundeek deitu behar zituzten Lan Eskaintza Publikoaren (LEP) berri Nafarroako Aldizkari Ofizialean maiatzaren 31rako eman zuten. Mankomunitateek eta

**2024AREKIN DESPEDITUKO DA ALDI BATERAKOTASUNA %8TIK BEHERA UZTEKO EPEA**

udalek urtea bukatu arte dute LEP deialdi guztiak onartu beharko dituzte. Horregatik, Nafarroako Aldizkari Ofiziala zerbaki bereziak ateratzen ari da astelehenero. Azken horietan herrialdeko toki administrazioen LEPen berri ematen ari da. Argitaratu diren deialdi batzuetan jakinarazten da prozesua berehalakoan hasiko dela, beste batzuetan, berriz, iragartzen dute 2023an edo 2024an eginen dela. Izan ere, enplegu publikoan behin-behinekotasuna %8tik behera uzteko epea 2024ko abenduaren 31n despedituko da. Ordurako eskainitako lanpostu guztiak funtzionarioek edo lan kontratadun finkoak diren langileek bete beharko dituzte.

Lanpostuak egonkortzeko deialdiak egiterakoan ere administrazio bakoitzak bere eskumenak ditu. Horregatik, nahiz eta udal langileak izan, idazkari eta kon-

tu hartzailen lanpostuen deialdiak Nafarroako Gobernuak egin ditu, eta ez udal edo mankomunitateek. Azken horiek administrari, zerbitzu anitzetako langile, euskara, kultura edo kirol teknikari, musika irakasle eta bestelako lanpostu hutsak betetzeko deialdiak egin dituzte.

**Ibarra**

Plantilla organikoetako kopuruak batuta, Sakanako toki erakundeetan 331 lanpostu daude. Baina langileak partekatzen dituzte hiru udal batasun daude. Batetik, Irañeta, Uharteko Arakil eta Arruazuko udalek hiru langile partekatzen dituzte. Irañeta eta Arruazuko udalak hiru horietaz aparte ez dute langile gehiago; Uharteko Arakilek, berriz, bi gehiago ditu. Bestetik, Bakaikuko eta Iturmendiko udalek bi langile partekatzen dituzte. Gainera, udal bakoitzak langile bana gehiago du. Eta, azkenik, Urdiain eta Ziordiko udalek bi langile partekatzen dituzte eta, horietaz aparte, udal bakoitzak hiruna langile ditu. Zazpi udal horien artean, beraz, zazpi langile partekatzen dituzte. Zenbait udalengan ere sekula bete ez diren lanpostuak ere badira. Hori guztia

**TOKI ERAKUNDEETAKO LANGILEEN HERENAK (97) BESTERIK EZ DU BERE LANPOSTUA JABETZAN**

kontuan izanik ibarreko lanpostu publikoak 316 dira.

Sakanako toki erakundeek garagartzaroaren 1erako argitaratu zituzten LEPak eta hiru udal batasunek egindako deialdiak kontuan hartuta, 206 lanpostu dira hurrengo hilabeteetan egonkortu behar direnak. Horiei idazkari eta kontu hartzailen artean behin-behinekotasuna murrizteko Nafarroako Gobernuak egindako LEPeko lanpostuak gehitu behar zaizkie. Sakanan guztira 219 lanpostu huts betetzeko prozedurak martxan daude gaur egun.

**Datuak**

Sakanako toki erakundeetako 316 lanpostuetatik 219 beteko dira eginen diren deialdien bidez. Hau da, ibarreko lanpostu publikoen %69,3 egonkortu behar dute prozesu horren bidez. Bestela esanda, ibarreko toki erakundeetan lan egiten duten langileen herenak (97) besterik ez du bere lanpostua jabetzan. Ibarreko hamabost udalen eta lau mankomunitateen artean errealitateak oso desberdinak dira. Ehunekoie erreparatuta lanpostu gehien egonkortuko dituztenak Arbuzuko Udala (plantillaren %87,5), Burunda mendebaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak (%84,62), Olatzagutiko Udala (%80,56) eta Altsasuko Udala (%80,43). Beste aldean daude Irañeta, Uharteko Arakil eta Arruazuko udal batasuna (%20), Ergoienako Udala eta Bakaikuko eta Iturmendiko udal batasuna (%25).

Kopuruari erreparatuta, deialdien bidez lanpostu gehien egonkortu dituzten toki erakundeak dira Altsasu (74), Olatzagutiko Udala (29) eta Sakanako Mankomunitatea (27). Lanpostu kopuru txikiena eskainiko duten udalak dira Irañeta, Uharteko Arakil eta Arruazuko batasuna, Ergoiena eta Bakaikuko eta Iturmendiko batasuna, bakoitzak lanpostu bana beteko du deialdi horren bidez.

**Erakundeak**

Nafarroako Gobernuak egin dituen bi deialdien bidez 13 idazkari eta kontu hartzailen plaza (%5,93) beteko dira ibarrean. Horiek kenduta 206 lanpostu dira toki erakundeek egonkortu nahi dituztenak. Hala, **Arakilgo Udalak** plantillan zazpi langile ditu. Prozesu honen bidez



## Idazkari eta kontu hartzaileak

Udaletako idazkariak eta kontu hartzaileak izendatzea Nafarroako Gobernuaren eskumena da. Historikoki foru administrazioak heldu ez dion gai bat izan da izendapenena. Izan ere, gobernu guztiek tokiko administrazioaren erreforma egin ondoren lanpostuak betetzeko deialdia egiteko asmoa izan dute. Erreforma egitea atzeratu zen eta 2019ra arte ez zen egin. Haren bidez bidez Nafarroan hainbat eskualde sortu behar ziren, tartean Sakanakoa. Baina aurreikusitako eskualdeak ez direnez sortu eta idazkariaren lanpostuen behin-behinekotasuna %90koa denez, Nafarroako Gobernuak erabaki du aldi baterakotasuna murrizteko presako neurriak hartzea eta lau modu egokitzea lanpostu horiek betetzeko. Sakanan hamar idazkari lanpostu eta kontu hartzaileen hiru bete gabe daude.

Azken urteetan lanpostuak beteta egon badira merezimendu lehiaketaren bidez beteko dira. Hala beteko dira ibarreko zortzi idazkari lanpostu: Arakil; Irañeta, Uharte Arakil eta Arruazu; Lakuntza; Arbizu; Ergoiena; Bakaiku eta Iturmendi; Altsasu eta Olatzagutia. Baina lanpostuen betetzean eten luzexkak egon badira, udal lanpostu horiek betetzeko oposizio irekia egingen da. Hala beteko da Irurtzongo idazkari postua. Merezimenduak kontuan hartutako prozesuaren bidez beteko da Sakanako Mankomunitateko idazkari lanpostua. Ibarrean hutsik dauden kontu hartzaile lanpostuak hiru dira: Sakanako Mankomunitatearena eta Irurtzun eta Etxarri Aranazko udalena. Hirurak ere merezimendu lehiaketa bidez beteko direnak.

Nafarroako Gobernuaren asmoa da prozesu guztiak bukatu eta lanpostu guztien kargu hartzea egun berean egitea. Prozesuan zehar udal batetik bestera langileen aldaketak egonen direnez, izendapen guztiak aldi beran eginda foru administrazioak saihestu nahi du lanposturen bat hutsik gelditzea.

lau lanpostu (%57,14) egonkortuko ditu: almintea edo zerbitzu anitzetako langilea, administrari laguntzailea, sozio-kultura dinamizatzailea eta garbitzailea. Ibarrean egonkortuko diren lanpostuen %1,83 dira Arakilgo Udalarenak.

**Irurtzongo Udalaren** plantillak 32 langile daude. Orain 13 lanpostu (%40,63) egonkortuko dira. Haietatik zazpi lanpostu garbitzailearenak dira, lau musika irakaslearenak eta bi gaztetxokoko begiralerenak. Irurtzongoak egonkortuko diren Sakanako lanpostuen %5,94 dira.

**Irañeta, Uharte Arakil eta Arruazuko udalen** artean bost langile dituzte eta LEP bidez orain lanpostu bat (%20) egonkortuko dute, zerbitzu anitzetako langilearena. Udal batasunaren deialdiarekin beteko den lanpostua Sakanakoen %0,46 da.

**Lakuntzako Udalaren** plantillan hamalau lanpostu daude eta haietako bederatzi (%64,29) egonkortuko dira orain: sei musika irakasleren lanpostuak eta administrari ofizial, garbitzaile eta zerbitzu anitzetako enplegatuaren lanpostu bana. Lakuntzan

egonkortuko diren lanpostu horiek ibarrekoen %4,11 dira.

**Arbizuko Udalak** plantilla organikoan aurten zortzi langile ditu eta LEP bidez zazpi lanpostu (%87,5) egonkortuko ditu: lau kirol begirale, sorosle-kirol koordinatzailea, sorosle begiralea eta garbitzailea. Arbizukoak Sakanan egonkortuko diren lanpostuen %3,2 da.

**Ergoienako Udalak** lau langile ditu eta lanpostu bat (%25) egonkortzeko prozedura abiatu du, zerbitzu anitzetako enplegatuarena. Ergoienako lanpostu

### ZORTZI IDAZKARI ETA HIRU KONTU HARTZAILE POSTUAK BETETZEKO DEIALDIA GOBERNUAK EGIN DU

### GOBERNUAREN LANPOSTUAK ERE EGONKORTUKO DIRA: MEDIKU, ERIZAIN, IRAKASLE ETA ABAR

hori ibarrean egonkortuko diren %0,46 da.

**Etxarri Aranazko Udalaren-dako** 27 langile ari dira (2021eko plantilla organikoko datua). Orain 14 lanpostu (%51,85) egonkortzeko prozesua abiarazi du udalak: zortzi musika irakasle, bi zerbitzu anitzetako langile, bi administrari ofizial, arduraduna eta zerbitzu anitzetako eta administrari laguntzailea. Sakanan egonkortuko diren lanpostuen %6,39 dira etxarriarrak.

**Bakaikuko eta Iturmendiko udalendako** lau langile ari dira lanean eta haietako baten lanpostua (%25) egonkortuko du udalak: administrari ofiziala. Bi udalen lanpostu hori ibarrean egonkortuko diren %0,46 da.

**Urdiain eta Ziordiko udalek** zortzi langile dituzte eta lau lanpostu egonkortuko dituzte (%50). Bi udalendako lan egingen duen zerbitzu anitzetako langilearen lanpostua batetik. Urdiaingo Udalak, bestetik, garbitzailearen eta liburuzainaren lanpostuak egonkortuko ditu. Ziordikoak, berriz, liburuzainarena. Ibarrean egonkortuko diren lanpostu guztien %1,83 da.

**Altsasuko Udalean eta bere erakunde autonomoetan** (Musika eta Dantza Eskolan eta Aita Barandiaran adinduen egoitza) guztira 92 langile ari dira. Egonkortze prozesuaren bidez 74 (%80,43) lanposturen behin-behinekotasunarekin bukatuko da. Honako lanpostuenak hain zuzen ere: 17 zaintzaile, 12 musika irakasle, 8 garbitzaile, 7 zerbitzu anitzetako langile, 5 begirale-sorosle, 4 haur hezitzaile, 3 begirale, 2 administrari ofizial, mandataria, administrari laguntzailea, aparejadorea, gazteria eta partaidetza teknikaria, ludotekaria, ludotekako laguntzailea, arduraduna, mendieta eta zerbitzu anitzetako enplegatua, igeltsero eta zerbitzu anitzetako enplegatua, atezaina, dantza irakaslea, adinduen egoitzako zuzendari kudeatzailea, erizaina, mantentze lanetako langilea eta harreragilea. Prozesuaren bidez Sakanan egonkortuko diren lanpostuen %33,79 Altsasukoak dira.

**Olatzagutiko Udalean** eta bere erakunde autonomoa den musika eskolan guztira 36 lanpostu daude. Haietatik 29 (%80,56) orain egonkortuko dira: Udan Euskaraz programako 12 begirale, 6 etxezain-garbitzaile, 5

musika irakasle, 2 sorosle, 2 gaztetxokoko begirale, administrari laguntzailea eta pintura irakaslea. Olatzagutian egonkortuko diren lanpostuak ibarrekoen %13,24 dira.

**Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen** plantilla organikoan bederatzi lanpostu daude eta haietako sei (%66,67) egonkortuko dituzte: 3 familia langile, 2 gizarte hezitzaile eta gizarte langile bat. Ibarrean egonkortzeko dauden lanpostuen %2,74 da.

**Etxarri Aranatz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen** bederatzi lanpostuetatik bost (%55,56) egonkortzeko daude: bina gizarte hezitzaile eta familia langile eta gizarte langile lanpostua. Sakanan egonkortuko diren lan-

postuen %2,28 dira erakunde horretakoak.

**Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak** hamahiru langile ditu eta hamaike lanpostu (%84,62) ditu egonkortzeko: hiruna familia langile gizarte langile, 2 gizarte langile, administrari laguntzailea, psikologoa eta garbitzaile peoia. Horiek ibarrean egonkortuko diren lanpostuen %5,02 dira.

Azkenik, **Sakanako Mankomunitateak** dituen 48 lanpostuetatik 27 (%56,25) egonkortuko ditu: 13 gidari peoi, 6 peoi, 2 gidari, 2 hezitzaile, administrari laguntzailea, gizarte hezitzailea, hondakin plantako arduraduna eta ofiziala. Ibarrean prozesu horren bidez egonkortuko diren lanpostuen %12,33.

**SAKANAKO ERRALDOIAK ZURE ZAIN Koloreta itzazu**  
28 orriak ditako liburuxka, ilustrazio eta azalpenekin

**28TIK AURRERA ESKURAGARRI**  
IRURTZUN, MARTXUETA  
ETXARRI ARANATZ, KAXETA  
ALTSASU, ARKATZ ETA LIBURUNDA

**gk** DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**  
619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu  
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

# EGUBERRIAK



## ABENDUAK 24

### OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

#### IRURTZUN

18:30 Olentzero Plazaolara helduko da.

Herriko musika taldeak, Iskidi taldeko joaldunak eta Orritz dantza taldeko txiki eta helduak eta bertara hurbiltzen den jendea lagunduta kalejira egingen dute: Plazaola, Trinitate, Amaia, Lizarra, Ugaldeta, Larraun, San Martin, San Migel, Artadia eta Gernika Parkea. Ibilbidean zehar 5. mailako ikasle batek eskutitza irakurriko du eta dantza taldeek dantzatuko dute. Amaieran, intxaurrek banatuko dituzte.

#### ETXARREN

16:30 Olentzerori harrera egingen diote, plazan.

Kalejira egingen du, Txoripanak taldeak emanaldia egingen dute eta opari banaketa egingen dute.

#### EGIARRETA

Arratsaldean, kanta kantari ariko dira, herrian zehar.

#### SATRUSTEGI - HIRIBERRI

18:30 Olentzerorekin merendua egingen dute, Satrustegin.

Ondoren, Olentzerorekin Hiriberrira martxa egingen dute. Behin Hiriberrin, Txiteran, jatekoak eta edatekoak egonen dira. Saskiaren zozketa egingen dute.

#### IHABAR

18:30 Olentzerori auresku batekin harrera egingen diote.

Opari banaketa egingen dute eta, bitartean, gaztain erreka banatuko dira.

#### IRAÑETA

18:00 Olentzero autobus geltokitik abiatuko da. Bukaeran, diru bilketa egingen da datorren urtean ohiturarekin jarraitu ahal izateko. Baserritarrez janztera animatu dituzte irintarrak.

#### UHARTE ARAKIL

10:15 Pazkoanamos egingen du UAGAK, udal plazan.

18:00 Olentzero eta Mari Domingi Itxesetik iritsiko dira eta kalejira egingen dute.

#### LIZARRAGA

18:00 Olentzero eta Mari Domingi Anaundik jaitsiko dira.

Beraiekin batera herriari buelta emanen diote kantuz. Etxe bakoitzean kandila ateratzera gonbitea egin dute: Su bat, etxe bat ateratzeko.

#### UNANU

16:30 Txokolatea prestatuko dute, soziedadean.

18:00 Olentzero eta Mari Domingi karrika itzulia egingen dute.

19:00 Txokolate jatea izanen da, plazan.

19:30 Pazkuekin Amores, etxez etxe.

#### DORRAO

14:00 Makarroi herri bazkaria egingen dute, Iturralde elkartearen.

16:00 Etxez etxe kantu erronda, akordeoi eta gitarra doinuak lagunduta. Haurrek xoxuak eta dirua jasoko dituzte.

18:00 Olentzero eta Mari Domingi harrera egingen diete, San Pedro bidean. Ondoren, haiekin batera herrian barna ibiliko dira.

19:00 Haurrekin egonen dira, plazan (euria eginez gero Ittur aldea frontoian).

19:30 Agurtu ondoren, merendua Iturralde elkartearen.

#### ARRUAZU

18:00 Haurrek egurtxoak margotuko dituzte gero sutan erretzeko. *Olentzero Enborra* ipuina irakurriko dute eta, ondoren, Olentzero Arruazura iritsiko da.

#### LAKUNTZA

11:30 Biltoki aipatzeko haurrek eguberrietako marrazkiak egingen dituzte, Biltokian.

18:30 Olentzeroren kalejira izanen da, Elai Alai dantza taldeak lagunduta.

Bukatzean, opariak banatzen dituzte eta txokolatea banatuko dute. Biltokik antolatuta.

#### ARBIZU

17:30 Euskal dantzen emanaldia egingen dute, plazan.

18:15 Abesbatza kantuan ariko da.

18:30 Olentzero eta Mari Domingi beheko basotik herrira joanen dira, eta bidean arbizuarekin topo egingen dute. Kalejira egingen dute eta, ondoren, opari banaketa egingen dute Argi Bidea elkartearen, Argi Bidea elkarrekin antolatuta.

#### ETXARRI ARANATZ

17:30 Olentzero eta Mari Domingi



**SAKANA** Sakanako herri askotara joanen dira bisitan Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 24ean.

harrera egingen zaie, Aldapasoro auzoan.

Txokolatea banatuko dute. Olentzeroren Lagunak antolatuta, Etxarri Aranazko Udalaren laguntzarekin.

#### BAKAIKU

18:00 Olentzero eta Mari Domingi plazara iritsiko dira haur, gazte eta heldu zain daudela.

Harrera egiten zaie eta herriari buelta ematen diote akordeoia eta panderoaren musikaz alaituta. Plazara iristean agurtzen zaie eta elkartearen auzate txiki bat egonen da.

#### ITURMENDI

16:30 Gabon kantak abestuko dituzte, plazan.

17:30 Txokolatada egingen dute, plazan.

18:30 Olentzeroren kalejira izanen da, plazatik.

20:00 Auzatea egingen dute; ardo egosia bananduko dute, frontoian. Ondoren, Saskiaren zozketa egingen dute.

#### URDIAN

18:00 Olentzero, Mari Domingi eta antortxeroak Santa Marina portutik plazara iritsiko dira. Plazan haurrek dantzatuko dute, eta, ondoren, herriari buelta emanen zaie. UAGAK antolatuta.

#### ALTSASU

12:00 Mari Domingiekin topaketa

eta auzatea egingen dute, Foru plazan.

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako koroak plazan emanaldia egingen dute. Kalejira fanfarrearekin eta Altsasuko gaita-jotzaileen laguntzarekin egingen du. Ibilbide zirkularra egingen dute, plazaraino. Eskutitzen bilketa egingen du, plazan.

17:45 Olentzero ermita kalera iritsiko da.

Kantuan lagunduko zaio eta ardo beroa banatuko da. Ibilaldia Altsasuko Txistulariak lagunduta egingen du, Foru plazaraino. Bertan, eskutitzen bilketa egingen du.

19:30 AGAK antolatuta taloak izanen dira, Gure Etxean.

#### OLAZTI

18:30 Olentzero eta Mari Domingi Belengo Iturritik iritsiko dira eta kalejira egingen dute, frontoian amaituz.

#### ZIORDIA

18:00 Olentzero eta Mari Domingi Lur gorrietako bidetik Dona Maria kalean agertuko dira eta han harrera egingen diete. Heritik kalejira egingen dute eta lehenengo geldialdia Goiko Iturrian zioridiarrek kantua abestuko diote. Ondoren, Inauterietako pertsonaiek herrian barnako bidea zabalduko diote segizioari eta kanta bat abestuko zaie, plazan. Aureskua dantzatuko dute, ermita parean.

Bukatzeko, gazteluan (frontoian



## Haurrak kalean kantari

Neguko solstizioarekin batera, abenduaren 24an, errepikatzen den ohituretako bat haurren etxez etxeko eskea da. Atean jo eta zabaltzen duenari kantuan aritzen zaizkio haurrak, opariren bat jaso asmoz. Lizarragan etxez etxeko eskean hala esaten zuten: *gaztein betzuk Gau Ona eitteko, fabores!* Garai batean jasotzen zituzten gaztaina, hur, intxaurrek eta bestelakoak goxoki eta diruak ordezkatu dituzte gaur egun. Etxarri Aranatzeko haurrek bere gabonsaria pazkuan amores eskatzen zuten. Altsasun eta Ziordian ere kantu eskean ariko dira umeak. Azken horretan ohiturari agur, agur hots egiten diote, eta jasotakoarekin eguberrietan bazkaria egiten dute.

eguraldiak laguntzen ez badu). Hemen haurrak haiekin egon, gutunak eman eta goxokiak jasotzeko aukera izanen dute.

## ABENDUAK 31

URTE ZAHAR EGUNA

### IRURTZUN

09:00 Txokolatada eginen dute, eta, ondoren, Erga mendiko Trinitatera igoko dira, Pikuxarretik. Pikuxarrek eta Iraxok antolatuta.

16:30 Pikubestre VI. Herri lasterketa izanen da, Pikuxarretik.

### UHARTE ARAKIL

IV. SAN SILBESTRE TRAIL

KM Bertikalak antolatuta.

15:30 Izena ematea, igerilekuetako tabernan.

16:00 Benjaminek 400 metroko ibilbidea eginen dute.

16:15 Haurrek 800 metroko ibilbidea eginen dute.

16:30 Kadeteek eta helduek San Bizenteko bira 4.500 metroko ibilbidea eginen dute.

Ondoren, luntx eta haurrendako txokolate beroa izanen dira.

### LAKUNTZA

09:30 Lakuntzeskuarrira joanen dira Lakuntzako mendizaleak, plazatik. Zabalartek Arangurenen hamaiketako eginen du.

### ALTSASU

SAN SILVESTRE ZIKLOTURISTA MARTXA. XXXVIII. URBASAKO IGOERA

12:00 Dantzalekutik Urbasa portu gainara.

Izena ematea egunean bertan 09:30etik 11:45era Dantzaleku tabernan, 10 eurotan. Parte hartzeko gutxieneko adina 18 urte. Parte hartzaileek kamiseta bat jasoko dute.

XLII. SAN SILVESTREA – MARIOREN OROIMENEZKOA

18:00 Haurren lasterketak

19:00 Helduen proba, 5 kilometro, udaletxe aurretik Foru plazara.

Izena ematea Dantzaleku Sakana klubeko webgunean, 5 eurotan eta bazkideak doan, abenduaren 30 baino lehen. Haurren izena ematea egunean bertan, doan. Bukaera sari banaketa eta zozketak eginen dituzte. Dantzaleku Sakana Klubak eta Sakana Triatlói Taldeak antolatzen du proba.

### OLAZTI

XIX. San Silvestrea.

11:30 Lau kategoria izanen dira: txikiak, 7 urtera arte, 300 metro; 8 eta 11 urte bitartekoak, 600 metro; 12 eta 15 urte artekoak, zirkuituari itzuli bat, 1.240 metro, eta helduak

16 urtetik gorakoak, zirkuituari lau itzuli, 5 kilometro inguru.

Izena ematea 10:30etik aurrera, frontoian. Bukaeran sari banaketa izanen da.

Sutegi probak antolatutako proba da, eta aurten goizera aurreratu dute.

## URTARRILAK 1

### IRAÑETA

00:30 *Ur goiena, ur barrena* Txapel Azpi elkartetik abiatuta.

### LIZARRAGABENGOA

00:15 *Ur goiena, ur barrena* Bordatxo elkartetik.

### ETXARRI ARANATZ

00:30 Sareren brindisa eta *Ur goiena, ur barrena*, plazan.

02:00 *Ur goiena, ur barrena* kantu erronda, eliz atetik.

### ITURMENDI

00:30 *Ur goiena, ur barrena* kinto erronda, Aritzaga elkartetik.

### URDIAIN

00:00 *Ur goiena, ur barrena*, apaizaren etxean.

### ALTSASU

01:00 Elkartasun brindisa eginen dute, gaztetxean.

20:00 Udalak gaztainak, intxaurrek eta ardoa banatuko du Altsasuko Udalak.

## URTARRILAK 3

### ALTSASU

PAJEAREN EGUNA

18:30 Errege Magoen pajeak Zelanditik irtengo dira.

19:00 Pajeek eskutitzen bilketa eginen dute, Foru plazan.

## URTARRILAK 5

ERREGE MAGOAK

### IRURTZUN

18:30 Errege Magoen kabalkada San Martin elizatik aterako da.

Herrian barna ibiliko dira, San Martin elizan bukatzeko. Bertan, hurrei harrera eginen diete. San Martin elizatik aterako da kabalgata.

Kabalgata batzordeak antolatuta.

### IRAÑETA

11:30 Txistorra jatea, elkartea. Jarraian, zintzarriekin herrian barna ibiliko dira.

### UHARTE ARAKIL

12:00 Erregeen pajeak gutunak jasotzen egonen dira eta

txokolatada izanen da, plazan.

18:30 Erregeen kabalgata Katangatik aterako da.

### LIZARRAGA

Eguerdian haurrek fare hotsekin erregeei dei eginen diete.

18:00 Erregeak Lizarragako elkartetik aterako dira. Herriari buelta eman ondoren, Dorraora eta Unanura abiatuko da kabalkada.

### DORRAO

Herri sarreran harrera eginen diete. Herrira sartuko dira eta Goienkaleraino joanen dira.

Ibilaldia plazaraino iritsiko da eta han erregeek goxokiak botako dituzte eta hurrekin hitz eginen dute.

Ondoren, guztiak elkartera doaz eta han kontzejuak eskainitako auzatea izanen da.

### UNANU

17:00 Txokolatada eginen dute, soziedadean.

19:00 Txokolatada, soziedadean.

Ondoren, San Andres ermitaren ondoan erregeei harrera eginen diete. Herrian barna ibiliko dira, eta 20:30ean plazara iritsiko dira. Dantzak eta kantak eginen dizkiete. Ondoren, pastak, moskatela eta mostoa eskainiko du kontzejuak.

22:30 Ergoienako herri afaria Denok bat elkartean.

### LAKUNTZA

18:00 Erregeen kabalgataren kalejira izanen da, plazatik.

### ARBIZU

18:30 Errege segizioari harrera eginen diote, plazan. Musikaz lagunduta herrian barnako kalejira eginen dute.

19:30 Segizioa elizara iritsiko da, eta elizaren barruan erregeen ordezkariak hitza hartuko du. Ondoren, hurrei goxokiak banatuko dizkiete.

### ETXARRI ARANATZ

19:00 Erregeak elizatik aterako dira. Herriari buelta emanen diote eta plazan bukatuko dute. Plazako estalopean hurrek erregeekin egoteko aukera izanen dute, eta goxokiak banatuko dituzte. Erregeen kabalgatako batzordeak antolatuta, Etxarri Aranazko Udalaren laguntzarekin.

### BAKAIKU

18:30 Errege segizioa beheko basotik etorriko da. Herrian barna kalejira egin

ondoren, eliza banatuko dituzte opariak.

### ITURMENDI

16:30 Haurrak fareekin herrian barna ibiliko dira.

17:30 Txokolate jana, plazan.

19:00 Errege segizioa beheko basotik etorriko da; Pilaralde kaletik herrira igoko dira eta bertan eginen diote harrera. Herrian barna kalejiran ibiliko dira. Bi geldialdi eginen dituzte: mojen etxean han bizi direnak agurtzeko eta elizan Jesus haurra agurtzeko.

Azkenik, ibilbidea frontoian amaituko da eta erregeek hitza hartuko dute. Ondoren, hurrekin egoteko aukera izanen dute, goxokiak banatuko dituzte eta auzatea izanen da.

### ALTSASU

17:00 Joare buruzagia aukeratuko dute eta joare jotzearen kalejiraren hasiera izanen da, Foru plazan.

18:00 Errege magoen kabalkada Sakana LHtik aterako da.

19:00 Adorazioa eta erregeekin elkartzeko aukera izanen da, Foru plazan.

## URTARRILAK 6

### UNANU

09:00 Sakanako mendizaleak Beriainera igoko dira, Larrañetatik.

### EGIARRETA

18:00 Joare jotzea eta gaztain erreak izanen dira.

## Haur dorrobarrak hotsa dariela ibiliko dira

Neguko solstizioarekin hiru ohi-tura berrituko dituzte dorrobarrak. Batetik, abenduaren 31an, larunbat, goizean, Eltze berri, eltze zahar ospatuko dute. Goiz horretan herriko haurrek etxeetako sukaldeetako eltze zaharrak hartu eta haiekin kalera aterako dira. Herrian barna haiek jotzen ariko dira, danborrak balira bezala. Horrela urte zaharra despeditu eta berriari harrera eginen diote. Garai batean eltze zaharrak bota egiten ziren. Bestalde, egun horretako gauerdian orain ere badira adineko dorrobarrak Goiko iturrira joaten direnak ura edatera.

Dorraoko haurrek hots aterako duten eguberrietako bigarren eguna ilbeltzaren 5a izanen da. Hamar urtez azpiko umeek etxean dauden animalien faleak hartu eta haiek soinean ahal bezala jantziko dituzte. Kalera atera eta eta herrian barna ibiliko dira. Zarata eginez erregeak gaztigatu nahi dituzte, Dorrao hor dagoela eta ez daitezela gelditu gabe pasa. Nahikoa hots egin ondoren haur eta gurasoak Iturralde elkartean elkartu eta zerbait janen dute.

Azken ohitura hori galdu egin zen. Duela hamabost urte berreskuratzeko ahalegina egin zuten, baina, atzera ere galdu zen. Duela hiru urte berreskuratu zuten, Dorraon umeak dauden seinale.



# Zurumurrueen kontrako ipuin bilduma irakurgai

Aurtengo ipuin laburren lehiaketan saritutako idazlanak jasotzen dituzten liburuxkak ibarreko liburutegietan eta ikastetxeetan izanen dira irakurgai. Bestalde, igandean Olatzagutian antolatutako elkartasun azokaren balorazio oso ona egin dute

## SAKANA

Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak Zurumurrueen Kontrako Ipuin Laburren III. Lehiaketan saritutako lanak bi liburuxkatan argitaratu ditu. Batean euskarazko lanak daude, bestean gaztelaniazkoak. Aurtengo lan sarituez aparte, aurreko bi edizioetako batzuk ere jaso ditu argitalpenak. Argitaratzeko falta diren ipuinak heldu den urteko sarituekin batera ikusiko dute argia. Hala jakinarazi zuen Begoña Zestau Baraibar kulturartekotasun teknikariak liburuxkaren aurkezpenean, asteazkenean.

Zestauk azaldu duenez, zerbitzuak lau balio sustatzen ditu: berdintasuna, aniztasuna, errespetua eta diskriminazio eza. Zestauk esan duenez, "narrazioekin bestelako eszena toki bat, desberdina, pentsatu, imajinatu, eskaini nahi da. Bestelako erreallitate positiboagoak irudikatzea.



Saritutako ipuin batzuen idazleak liburuxken aurkezpenean elkartu ziren.

Hau da, aurreiritziz, estereotipoz eta zurumurruez eta hitz egiteko modu horiez libre egonen dena. Izan ere, halakoek elkarbizitzari eta aipatu balioei eragin eta min egiten dute. Haiek gabe hobe bizi gaitzke". Argitalpenak

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izan du.

## Azoka

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak eta Olatzagutiko Uda-

leko Kultura eta Ludoteka zerbitzuak antolatuta, elkartasun azoka hartu zuen udal pilotalekuak domekan. Aurreko hiru ostegunetan kultur etxean egoera onean zeuden objektuak jaso zituzten antolatzaileek. Jendeak "izugarri" eman zuela jakinarazi zuen Zestauk. Horiek guztiak dozena bat postutan salgai jarri zituzten. Mahaietan liburuak, jostailuak, arropa, oinetakoak, maindireak, mantak, bitxiak, poltsak, baxera, umeendako gurdia... denetarik izan zen.

Salmahaiez aparte, Help NA gobernuz kanpoko erakundeak kideek haurren eskubideen inguruko tailerra izan zen. Pintxoak eta tea dastatzeko aukera izan zuten frontoitik pasa zirenek. Baita marokoar jatorria duten olaztiarrek prestatutako krepeak, ogia, pizzatxoak ere. Goiz guztian zehar jende ugari pasa zen frontoitik, batez ere eguerdi partean. Orduan postu guztiak topera egon ziren.

Guztia behar bezala antolatzeaz 14 boluntario arduratu ziren. Antolatzaileak azokak izandako harrerarekin eta helburuak bete zirela ikusita "poz-pozik" zeuden, "zoragarria" izan zela gaineratu dute. "Premiak gero handiagoak direnez, heldu den uda baino lehen beste bi azoka aurreikusiak ditugu", aurreratu du Zestauk. Olaztiarrek eman eta saldu ez zena Elkarri Laguntza gobernuz kanpoko erakundeari eman diote antolatzaileek.



Taldeakideak landaketa egiten. UTZITAKOIA

## Basoixin dozena bat hagin landatu dituzte

Zuhaitz Maiteak taldeak egin du. Basoaren birsortzearekin kezka azaldu dute

## ALTSASU

Basoixin egindako baso aprobetxamenduari adosez dagoen Zuhaitz Maiteak taldeko kideek dozena bat hagin landatu zituzten basoko dermio horretan hilaren 11n. Landareak eskaini zizkieten eta aukera baliatzea erabaki zuten. Taldeko dozena bat kidek parte hartu zuten landaketan, eta haiek dira zuhaitzen zaintzaz arduratzen direnak. Etorkizunean beste espezie batzuen landaketak egiten dituztela ere jakinarazi dute taldeko kideek.

Zuhaitz Maiteak-ekoek azaldu dutenez, zuhaitz mozketa egin ondoren udalarekin bildu ziren eta jakinarazi zieten Basoixin hainbat zuhaitz espezie landatuko zituztela. "Baina klima aldaketatik eta ur faltatik, udan basora egindako bisitaren ondoren teknikariek iritziz aldatu dute eta basoari berez etortzen utziko diote. Birlanaketa egiten den toki bakarra dame-roaren bidearen bi aldetara 40 metroko zabaleran izanen da. Gainontzekoa berez etortzen den eran utziko dute", azaldu du taldekide batek. Gaineratu duenez, "garai batean bezala landaketa auzolanean egitea proposatu genion udalari, baina ez zuten argi. Ekintza zuzena egin dugu".

## DUELA 25 URTE...



## Mangajo aldizkariaren 5. zenbakia

Bilbon ikasten zuen ikasle altsasuar talde batek sortu zuen *Mangajo* izeneko aldizkaria. Aurreneko zenbakian hainbat gai landu bazituen ere, hurrengoak monografikoak izan ziren: cannabis, telebista, desobediencia eta sexua. Aldizkaria Bilbon egiten hasi ziren, baina lehen monografia, dagoeneko, Altsasun osatu zuten. Sortzaileen herriaz aparte, Etxarri Aranatzan eta Olatzagutian ere saltzen zen aldizkaria 300 pezetatan (1,8 euro). Irabaziak bazituzten hurrengo zenbakirako bideratzen zituzten.



©IGLESIA NAVARRA

## Elizkizuna beatifikazioagatik

Dozena bat erredentoristak beatifikatu zituzten Madrilgo Almodena katedralean lastailaren 22an, tartean Aniceto Lizasoain Lizaso irintarra, Madrilen 1936ko agorilaren 17an hila. Beatifikazioa dela eta, Francisco Perez Gonzalez gotzaina Irañetara etorri eta ospakizun elizkizunean izan zen abenduaren 11n.



**Neguko  
denbora-pasak**

Zein elementu dago bikoiztuta?



# Dermioen letra zopa

Y	W	N	A	U	E	R	A	E	Z	T	N	U	K	E	R	R	E	V	I
V	Y	X	P	Z	E	S	Y	N	B	R	E	H	I	F	W	X	E	Q	N
T	R	I	G	G	M	T	X	O	P	O	R	D	I	Y	A	Y	T	Q	S
L	Q	O	A	C	D	P	O	I	J	N	T	U	G	I	U	B	E	O	X
A	E	P	L	A	B	A	X	T	E	D	I	B	E	A	N	F	I	Z	T
Q	T	X	A	A	W	X	O	N	W	D	A	R	R	I	U	R	D	I	N
H	I	R	R	O	Z	B	Q	E	R	R	A	K	A	R	T	O	P	N	H
R	D	I	T	Z	E	U	J	H	Z	O	R	R	E	B	C	D	Y	E	M
C	O	I	Z	I	O	O	A	K	T	A	R	K	A	V	A	X	N	U	M
Z	I	E	A	M	U	X	T	U	R	B	I	Z	K	A	R	L	R	G	W
M	T	S	B	O	K	A	K	V	L	L	I	M	H	S	A	U	E	U	E
B	X	H	A	T	E	U	R	I	M	J	I	L	X	S	B	R	S	P	Z
K	I	D	Z	P	X	N	M	Y	P	O	K	R	X	I	R	A	F	F	E
N	K	G	T	F	P	L	A	N	O	V	L	Z	B	E	R	G	A	E	C
S	I	A	A	S	O	O	N	T	E	W	Z	R	L	R	T	O	J	F	T
T	W	U	R	S	W	Z	S	C	Q	X	V	R	E	T	R	Q	Z	V	K
E	J	B	R	W	P	J	U	G	A	R	K	A	B	U	R	U	G	D	Q
T	X	E	A	T	E	O	S	L	U	S	N	J	X	E	P	M	L	D	P
I	R	A	I	G	A	M	I	K	Z	X	L	A	P	I	Z	H	P	B	X
J	E	H	I	W	N	O	K	A	R	O	R	C	X	B	V	Z	V	U	R



- Amuxturbizkar
- Arriurdin
- Auzalor
- Berroz
- Bidetxabal
- Epela
- Erlo
- Errekuntzea
- Galartzabaztarra
- Gaubea
- Idoitxiki
- Izoa
- Mirueta
- Murubi
- Orakon
- Potraka
- Sulsoeta
- Txopordi
- Ugarkaburu
- Usarre

## Sudokua



# Mel eta ehun goibel Castillo Suarez eta Morkots

Elurra ausarki egiten zuen toki batean, bazen behin ❶ \_\_\_\_\_ bat Mel deitzen zena. Neguan iglu batean bizi zen, izotzez egindako etxe batean; udaro, berriz, larruzko etxe batera aldatzen zen bere ❷ \_\_\_\_\_.

Ez zuen lagun askorik bere herriko haur bakarra zelako.

Mel aspertu egiten zen arrantzan. Gorroto zuen orduak eta orduak ematea ❸ \_\_\_\_\_ puska baten gainean, zain.

Batzuetan ❹ \_\_\_\_\_ zuria hurbiltzen zitzaion, ordea, eta besarkatzen zuen ilezko bola bat osatuz. Orduan hotza desagertu eta bero goxo batek inguratzen zituen biak.

Melen begiak txiki-txikiak ziren, ia ikusezinak, eta bere ❺ \_\_\_\_\_ luzeak eta lodiak. Horrela, eguzkiaren izpiek elurrean sortutako distirak ez zion minik ematen.

❻ \_\_\_\_\_ zen Mel, bere herriko guztiak bezala, meheek eta altuek okerrago jasaten dutelako hotza, hori gauza jakina da.

Melek ez zekien zer zen belarra, zuhaitza edo lorea, ez zituelako inoiz ikusi.

Melek ez zekien zer zen autoa, kayakez edo leraz joaten zelako hara eta hona.

Melek ez zekien zer zen ❷ \_\_\_\_\_ bat.

Mel eta ehun goibel deitzen zuten denek, bere gaineko zerua goibeltzen zelako beti. Melek uste zuen bere erruz makurtzen zela eguraldia. Berak ekartzen zituela elur ❸ \_\_\_\_\_.

Egun batean, elurra hasi zuen inoiz baino gogo handiagoarekin. Elur lumak lodi-lodiak ziren, txorien gisakoak eta denek, animaliek zein pertsonenek, babesera joan behar izan zuten.

Melek pentsatu zuen iritsi zela joateko eguna: goibel guztiak bere atzetik joanen ziren eta hobetuko zen eguraldia bere ❹ \_\_\_\_\_.

\_\_\_\_\_. Lo handia egin ondotik, bere puskak bildu, eta abiatu zen eguzkiaren atzetik eta elurra bezain isilik.

Melek entzuna zuen toki epeletan bideak beltzak zirela, elurrik eta ❺ \_\_\_\_\_ gabekoak, makina batek kentzen zuelako gaineko elur izara zuria. Melek, ordea, ez zekien zer zen makina bat. Ez zekien ere zer zen elurra kentzeko makina bat.

Elur-haizeak ekarrita beharbada, Mel eta ehun goibeli elur-orein bat azaldu zitzaion bidera: Goibelak zure atzetik baldin badoaz, ni ere joanen naiz zurekin.

Melen gogoa elurra kentzeko makinak ikusteko handitzen eta handitzen ari zen, maldan ❻ \_\_\_\_\_ heldu den elur-bolaren antzera.

Bidean aurrera egiten ari zirela, baso batean sartu ziren. Mel eta ehun goibeli ezpainetara etorri zitzaizkion zuhaitza, belarra eta ❷ \_\_\_\_\_ hitzak. Elur-oreinak, parajearen ederra ikusita, bertan geratzea erabaki zuen.

Mel eta ehun goibel zuhaitz baten burura igo zen. Bitartean haizeak goibelak iparralderantz bulkatu zituen, eta ❸ \_\_\_\_\_ bueltatu ziren beren sorterrira.

Zuhaitz puntan zegoela ikusi zuen Melek lehendabiziko aldiz auto bat eta autoa hitza ahora etorri zitzaion. Mantso-mantso zihon errepede beltzetik, elurra kentzeko makina baten atzetik. Makina ❹ \_\_\_\_\_ botatzen ari zen errepede beltzean. Elurra kentzeko makina ahoskatu zuen Melek lehendabiziko aldiz.

Baina Melek arrangura handia sentitu zuen bere bihotzean: Badakite etorri naizela paraje honetara eta nirekin goibelak heldu direla, eta, haiekin, elur maingia.

Goibelak urruti zeuden, ordea. Eta elur makinak eta autoak aitzinera egin zuten, bata bestearen ondotik.

Esaten dutenez, baso hura ez zen inoiz gehiago ❺ \_\_\_\_\_.

- |  |                                  |
|--|----------------------------------|
| ❶ animalia, pertsona, inuit                              | ❶ erauntsiak, malutak, bolak     |
| ❷ lagunekin, familiarekin, eskiekin                      | ❷ etxean, herrian, auzoan        |
| ❸ izotz, harri, putzu                                    | ❸ harririk, malkorrik, izotzik   |
| ❹ txakur, hartz, orkatz                                  | ❹ behera, gora, gora-behera      |
| ❺ bekainak, oinak, hatzak                                | ❺ landarea, lorea, larrosa       |
| ❶ Handia eta argala, Txikia eta lodia, Txikia eta argala | ❶ korrika, txilipurdika, dantzan |
| ❷ fabrika, makina, bizikleta                             | ❷ azukrea, eztia, gatza          |
|  | ❷ Gorritu, horitu, zuritu        |




# Non daude Sakanako elizak?







# Gurutze-gramma



## Horizontalak

- 2. Gimnasia Erritmikoko taldea.
- 4. ... Olaberria argazkiko Arakilgo alkatea.
- 6. ... Suarez euskaltzain oso izendatu duten sakandarra.
- 8. '... erdi' Ainhoa Ramirez de Aldaren ipuin ilustratua.
- 10. ... Berriak 25 urte bete dituen Sakanako banda.
- 11. Antzinako aztarnak agertu diren Olaztiko lezea.
- 16. Bakaikuko herri kooperatiba.
- 17. Urbasako ... kotxe lasterketa.
- 20. Joseba ... Lau eta Erdiko txapelduna.
- 22. ... Arregi klinika psikogeriatrikoa.
- 23. Jose Mari ... saskibaloia arbitroa.
- 24. Sakanako haritzekin itsasontziak egiten dituen faktoria.
- 25. ... Ollo argazkiko Altsasuko alkatea.

## Bertikalak

- 1. Iosune ... Munduko Karate txapelketan brontzea.
- 3. Festetan zortzikoa berreskuratu duen herria.
- 5. Arakilgo gaztelua.
- 7. Altsasuko gazte gunea.
- 9. Dos ... Iturmendin fusilatu zuten koronela.
- 12. Iurtzungo gazte elkarte.
- 13. ... Trail Etxarri Aranazko lasterketa.
- 14. Aitziber ... argazkiko 'Benetan zabiz?' podcasteko kazetaria.
- 15. ... Uribe argazkiko ilustratzailea.
- 18. Arbizuko jauregia.
- 19. Markos ... Enduro Espainiako txapelduna izan den argazkiko motor gidaria.
- 21. Sakanako herririk populatuena.



**Bilatu 5  
desberdin-  
tasunak**



# Sukaldeko tresnak

## Sakanako hizkeran



araiztga  
-----

blaaan  
-----

zieelt  
-----

sbeau  
-----

aelikutb  
-----

lafraet  
-----


exprirat  
-----

arkxoe  
-----


# Lotu esanahi bereko hitzak

- |                 |                |
|-----------------|----------------|
| 1. Bultzatu     | __ Urria       |
| 2. Higuindurik  | __ Mara-mara   |
| 3. Zeille       | __ Saguzahar   |
| 4. Ahitu        | __ Babarrun    |
| 5. Idergi       | __ Bidezidorra |
| 6. Miyeluze     | __ Bits        |
| 7. Gider        | __ Saskitxo    |
| 8. Katalingorri | __ Hitzontzi   |
| 9. Xenda        | __ Irakurri    |
| 10. Lastaila    | __ Akabatu     |
| 11. Inerexagu   | __ Ilargi      |
| 12. Alubi       | __ Bulkatu     |
| 13. Jaskitxo    | __ Horixe      |
| 14. Geizteinkei | __ Marigoringo |
| 15. Itxesu      | __ Ziztatu     |
| 16. Apar        | __ Itsaso      |
| 17. Oixe        | __ Kirten      |
| 18. Fara-fara   | __ Zaila       |
| 19. Leittu      | __ Gaiztakeri  |
| 20. Piketu      | __ Asperturik  |

# Hitz ezkutua



Zein hitz dago ezkutatuta?



**Urte  
berri  
On!**

**Erantzunak urtarrilaren 9an  
[www.guaxe.eus-en](http://www.guaxe.eus-en)**



Azoka egunean jende askoren hizketagaia izan ziren lanak.

## Hiru hilabete barru Altsasuk estalpea izanen du

Ondarria industrialdeko lanak despeditu ondoren, Amandrean eta lortian daude obrak

### ALTSASU

Burunda frontoiaren eta Iortia kultur gunearen arteko zabalgunean estalpea eraikitzen hasi dira Construcciones Lacunza SM enpresako langileak. Asteartean lan eremua hesitu eta asteazkenean hasi ziren lanean. Hala jarraituko dute hiru hilabetez. Udalak horien truke 473.195,1 euro (BEZ kanpo) ordainduko ditu. Hura finantzatzeko udalak Nafarroako Gobernuaren 300.000 euroko dirulaguntza du.

Jasoko den estalpea hiru aukeren artean altsasuarrek aukeratu zuten *Hiriko zuhaitza* izeneko proiektua da. Lanak emateko lehen deialdia hutsik gelditu ondoren Francesca Fiorelli arkitektoak proiektuan zenbait aldaketa egin zituen: altzairuzko egitura izan beharrean egur laminatukoa izanen du. Sabaiko argizuloak murriztu eta haietan

kristala jarri beharrean polikarbonatozko plakak jarriko dira.

Bestalde, lanak egiten ari den enpresa bereko langileak Amandrea plazako zorua eta haren pean dagoen lurpeko aparkalekuko hezetasunak kentzeko lanak egiten ari dira. Eta, berriki, Ondarria industrialdean zenbait hobekuntza lan egin dituzte. Zehazki, D kalean hormigoizko eta asfaltozko zoladurak konpondu eta berriro dituzte, eta euri urak husteko sare txiki bat egingo da. B kalean, berriz, espaloietan dagoen hormigoizko zoladura konpondu da, baita hondatutako asfaltoa ere. Lanek 103.507 euroko aurrekontua zuten. Haiek finantzatzeko Altsasuko Udalak Ekonomia eta Enpresa Garapenerako Departamentuaren 50.557 euroko dirulaguntza izan du. Udalak industrialde horretan hobekuntza gehiago egin nahiko lituzke, beti ere, laguntza jasotzen badu.

# Plazako estalpea martxo akaberararako prest

Estalpeko zoru berria jarri arte Ubelde kalea itxita egonen da. Estalpea jartzerakoan ere itxi beharko da kale hori. Bestalde, udalak erabaki du Agonia etxea enkante bidez salduko duela

### ARBIZU

Arbizuko plazako frontoia zegoen tokian estalpea jasotzeko lanak duela bi aste hasi ziren. HMB enpresako langileak ari dira hura egiten. Estalpea egiteko bi hilabeteko epea izanen du enpresak. Lanengatik udalak 123.000 euro inguru ordainduko ditu. Estalpea egiteko lanek ez dute udala zorpetuko, izan ere, hura finantzatzeko bi dirulaguntza erabiliko ditu: Cederna-Garalurren bidez, Landa Garapenerako Funtsetik jasotako 50.000 euroak eta pandemia garaian jasotako erabilera askeko dirulaguntzako 63.000 euroak. Lanak emateko lehen deialdia martxoan egin zuen udalak baina hutsik gelditu zen. Ondoren aipatutako enpresak lanak egiteko interesa azaldu eta hura arduratu da lanez.

Herri galdeketa egin zen 2021ean eta arbizuarrek estalpe finko bat nahi zuten. Erantzuna baiezkoa bazen bi aukeren artean zein zuten gogokoen botoa emateko aukera izan zuten herritarrek 2021eko martxoaren 28an. Arbizuarrek lauki formako estalpearen alde egin zuten.

### Etxea eta ordenantza

Kale Nagusiko 43. zenbakian dagoen etxea, Agoonia edo Cas-tejon Itxa izenak dituen, Arbi-



Langileak estalpearen oinarriak eta zorua prestatzeko lanak egiten. UTZITAKOA

zuko Udalarena da. Udal ordezkariak Nasuvinsarekin batera aztertu zuten han alokairurako etxebizitzak egiteko aukera. Baina "egin zitezkeen etxebizitza kopurua txikia zen, eta aurrekontua handia", azaldu dute. Horregatik, Arbizuko Udalak etxe horren besterengarritasun deklarazioa onartu zuen irailaren 26an. Erabakia jendaurrean hilabetez egonen da. Udalak hartutako erabakiak aukera eman dio bere jabetza hori saltzeko. Horretarako, enkantea deitzeko asmoa du udalak. Enkantean

etxea salgai jarriko du, baina ez borda.

Bestetik, Arbizuko Udalak lehentasunez birgaitu beharreko eremuan sartuta dauden sustapen pribatuko etxebizitzak birgaitzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza indarrean da. Araudi horren bidez udalak 50 urte baino gehiago dituzten eta Nagusia edo Fernando Urkia kaleetan dauden eraikinak birgaitu edo zaharberritzerakoan instalazioen eta obren gaineko zergan eta bide publikoa okupatzeko tasetan hobariak izanen dituzte.

## Topaketa arrakastatsua

Iparraldeko belenzaleen elkarteetako 186 kide elkartu ziren urteroko topaketan. Sakanako belenzaleen elkartearen izan zen aurten anfitrioi, eta 19 jaiotzez osatutako erakusketa prestatu zuen. Etorritako belenzaleen artean oso aipatua izan zen sakandarrek perspektibarekin egiten duten lana: "oso espazio txikian jaiotzei sakontasun handia ematen diete".



## FUTBOL PREFERENTEA

## 15. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Universidad de Navarra - Altsasu	2-1
Etxarri Aranatz - Valle de Egües	1-4
Itaroa Huarte B - Lagun Artea	5-0

## SAILKAPENA

## PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Universidad de Navarra	34
7 Altsasu	24
16 Etxarri Aranatz	10
18 Lagun Artea	5

## HURRENGO JARDUNALDIA

## ILBELTZAK 14 EDO 15

Altsasu - Itaroa Huarte B (Dantzaleku)
Doneztebe - Etxarri (I. Indart)
Lagun Artea - Burladés (Zelai Berr)

## Altsasuk liderraren kontra ezin

Universidad de Navarra liderraren kontra galdu ondoren, Altsasu zazpigarren postura jaitsi da. Lehen txanpa ona egin du mailaz igo den talde sakandarrak.

## Etxarrik irabazi beharra du

Valle de Egües taldearekin galdu egin zuen Etxarrik, eta azkeneko postu horietatik ateratzeko puntuatzen hasi beharra du.

## Lagun Artea, zulotik ateratzera

Lakuntzako taldeak jipoi gogorra jaso zuen Uhartelurruñean, eta urte berriarekin irabazten hasi beharko du, bai ala bai.

## EMAKUME PREFERENTEA

## 10. JARDUNALDIKO EMAITZA

Idoya - Altsasu	3-0
-----------------	-----

## SAILKAPENA

## EMAKUMEEN PREFERENTE 1. MULTZOA

1 Idoya	26
6 Altsasu	10

## HURRENGO JARDUNALDIA

## ILBELTZAK 14 EDO 5

Altsasu - Lagunak (Dantzaleku)
--------------------------------

## Altsasu, lehia garrantzitsua prestatzera

Oporren bueltan Altsasuk bosgarren eta arerio zuzena den Lagunak hartuko du.

## FUTBOL ERREGIONALA

## 13. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu B - Baztan B	0-0
----------------------	-----

## SAILKAPENA

## ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Beti Onak B	35
12 Altsasu B	12

## HURRENGO JARDUNALDIA

## ILBELTZAK 14 EDO 15

Beti Kozkor B - Altsasu B (Lekunberr)
---------------------------------------

## Altsasu, oporren bueltan Lekunberrin

Oporren ondoren Beti Kozkor arerio zuzenaren kontra jokatu du Altsasuk.

# Naroa Otxoak Sakanako txapela jantzi dezake

**PALETA GOMA** Abenduaren 23an Sakanako Nesken Pala Txapelketako kategoria txikiko finalak jokatu dira, eta abenduaren 24an, goizez, Lehen mailako eta eliteen mailako finalak. Maila nagusian Naroa Otxoa da ordezkari sakandar bakarra

**Maidier Betelu Ganboa** ETXARRI ARANATZ Iritsi da XVIII. Gure Pilota Emakumezkoen Sakanako Pala Txapelketako txapeldunak ezagutzeko garaia. Sakanako Mankomunitateak eta Gure Pilota Klubak Eseki babeslearen laguntzarekin antolatutako txapelketa aurreikusitako bezain lehiatua, pilotatua eta ikusgarria izan da, eta palista finenek lortu dute amestutako finalerako tokia.

Abenduaren 23an, ostirala, 16:00etan jokatu dira kategoria txikietako finalak, Etxarri Aranatz. Txitoen mailan Nerea eta Olaitzek Laiatz eta Katixa izango dituzte aurkari, Tximelak mailan Jarek eta Arhanek Malenen eta Arhaneren kontra jokatu dute eta Kattagorriak mailan June C. eta June L. bikoteak Aizeti eta Iraiaren kontra. Azkenik, Usoetan, Haizeak eta Onditzek June O. eta Juleneren kontra jokatu dute, eta Pottokean Laidak eta Maialenek Uxueren eta June A.-ren kontra.



Enara Macicior, Naroa Otxoa, Miguel Aristorena, Ane Kerejeta eta Leire Artzkoz, finalerdian.

## Arantza kentzera

Maila nagusiko finalak abenduaren 24an, larunbata, jokatu dira, 11:00etan. Lehen mailan Naroa Otxoa etxarriarrak eta Enara Maciciorrek Nahia Eizmendi eta Andrea Lusarreta

izango dituzte aurkari. Otxoak azken bi urteetako finalak galdu ditu, eta aurtengoan arantza kendu nahi du. Eliteen finalean Uxue Murillok eta Paula Gorostiak Haizea Salanuevaren eta Maiderrren kontra jokatu dute.

## Josu Igoaren beste txapela

**PILOTA** Josu Igoa Lopez de Agileta (Oberena) pilotari etxarriarrak urteari ginga jarri dio asteburuan Gorka Ugartemendiarekin (Aurrera Tolosa) batera Bankoa-Diario Vasco Txapelketako senior mailako txapela irabazita. Igoak eta Ugartemendiak 22 eta 19 irabazi zieten Iñaki Elolari (Aurrera Tolosa) eta Antton Apezteari (Umora Ona) final oso estuan markagailuari buelta emanez.



UTZITAKOA

## PILOTA Ezkurdiak eta Martijak boladari buelta eman nahi diote

Egunotan Binakako Pilota Txapelketako bosgarren jardunaldia dago jokoan eta puntu batekin sailkapena ixten duten Joseba Ezkurdia eta Julen Martija sakandarrak erreakzionatu beharra dute. Abenduaren 23an, ostiralarekin, Jaka eta Aranguen izango dituzte arerio Irunen, eta sentsazio onak berreskuratzea eta euren bigarren puntua litzatekeena lortzea izango da erronka. Txanponaren beste aldean daude, ordea, Jose Javier Zabaleta eta Aitor Elordi. Jokatuak lau partidak irabazita, abenduaren 26an liderrek bi punturekin sailkapenean hirugarrenak diren Laso eta Imaz izango dituzte aurkari Tolosan.

Bestalde, Promozio Binakako ere bosgarren jardunaldia erabakiko da eta Joanes Bakakoak eta Aimar Morgaetxebarriak Expositoren eta Bikuñaren kontra jokatu dute Irunen. Hiru punturekin, sailkapenean bigarren dira Bakakoak eta Morgaetxebarria.



Aurten 1.500 txirrindulari aritu ziren.

## TXIRRINDULARITZA

## Ilbeltzak 1, La Peluson izena emateko aukera

Irurtzun Taldea klubeko Santi Morenok La Peluso txirrindularitza probetan izena ematea 2023ko ilbeltzaren lehen zabalduko dela azaldu du. Zikloturista Martxa maiatzaren 13an jokatu da, eta Taldekako Erlojupekoa, berriz, maiatzaren 21ean. Partehartze handia espero denez, izena ematea lehenbailehen egitea gomendatu dute. 1984ko Reynolds-ko txirrindulariak omenduko dira.



Maitane Vilariño primerako denboraldia egiten ari da Osasunan, eta Euskal Selekzioarekin ere ongi jokatu zuen. OSASUNA

# "Ikaragarria izan da Euskal Selekzioarekin jokatzeara"

**MAITANE VILARIÑO MENDINUETA OSASUNAKO FUTBOLARIA**

**FUTBOLA** Txileren kontrako hirugarren golaren asistentzia egin zuen olaztiarrak. Osasuna Lehen Mailara igotzea da aurtengo helburu nagusia

**Maidar Betelu Ganboa** OLAZTI

Asteartean Euskal Selekzioak 3 eta 0 irabazi zion nazioarte mailan eskarmentu handia duen Txileko Selekzioari. Maitane Vilariño Mendinueta olaztiarren debuta primerakoa izan zen, hirugarren goleko asistentzia egin baitzuen. Orain Osasunak Lehen Mailara igotzeko borrokan murgilduko da berriz. **Noiz jakin zenuen Euskal Selekzioa hautatuetakoa bat zinela?** Aurreko ostiralean, Osasunarekin Granadara abiatu baino lehen.

Sandra Gramajok deitu zidan berria emateko. Oso pozik hartu nuen, ez nuelako espero. Oraindik 20 urte ditudanez absolutura joatea ez nuen aurreikusten. **Euskal Selekzioan lehen mailako jokalariekin batera jokatzeara handia**

**"EUSKAL SELEKZIOAN ASKO IKASI DUT; LEHEN MAILAKO JOKALARIEN AHOLKUAK OSO ONGI ETORRIKO ZAIZKIT"**

**izango da. Agian zuk miresten duzun jokalariren bat izango zenuen taldekide.**

Jakina! Errealeko jokalaria, esaterako: Nerea, Iraia, Ane Etxezarreta, Amaia... beraiekin talde berean jokatzeara ametsa izan da. Oso gustura aritu nintzen, lana izugarri erraztu zuten eta hori ere eskertzekoa da. **Tarte gutxi izan zenuten Txileko Selekzioaren kontrako astearteko partida prestatzeko.** Oso gutxi. Astelehen arratsaldean entrenatu genuen eta astearte

goizean taktika landu genuen: arerioa nola estutu, baloi geldiko jokaldiak -faltak, alboko sakeak...- nola prestatu eta hala-koak. Batzuk asteburuan jokatzen gendozen, esaterako guk Granadan jokatu genuen eta Eibarkoek Kordoban, eta entrenamendu oso esturik egin gabe jokatu genuen.

**Txile 2019an Munduko Kopan aritzen, azkeneko Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen eta Amerika Kopan bi aldiz izan dira txapeldunordeak. Txileri irabazteak meritu handia du.** Txile goi mailako selekzioa da, eta guk, soilik bi egunetan elkar ezagutu, horren ongi jokatzeara eta irabazteak pentsatzen dut gutaz asko esaten duela. Nahiz eta 3 eta 3 eta 0 irabazi, Txilek ez zizkigun gauzak batera erraztu, euren ere beren aukerak izan zituztelako. Baina futbola horrelakoa da.

**Partidaren 57. minutuan sartu zinen zelaira, Sanadri ordezkatzera. 83. minutuan asistentzia bikaina egin zenion ezkerretatik erdiguneko zegoen Ane Mireni, hark golean bilakatu zuen. Euskal selekzioan ate handitik sartzea da hori.**

(Kar, kar...) Hasieran partidaren sartzea kosta egin zitzaidan, erritmoa handia zelako. Txileko hegaleko jokalaria nekatuta zegoela jabetuta, eta ni fresko nengoen eta abiadura nire indar-guneetako bat denez, Nereari pase luzea eskatu nion eta baloia iritsi zenean, aurre hartu nion, Ane Mireni erdiratu, eta hirugarren gola iritsi zen. Oso pozik nago.

**Juanjo Arregi hautatzaileak esan zuen zelaian argi ikusi zela Euskal Selekzioa Eurokoparako edo Mundialerako sailkatzeko gai dela.** Dugun maila erakutsi genuen, eta uste dut Eurokopara joango bagina ez ginatkeela gaizki arituko. Baina horretarako elkarrekin gehiago entrenatu beharko genuke. Aukera ematen badigute, hor egongo gara.

**Euskal Selekzioarekin jokatzeara...** ... ikaragarria izan da. Askosi dut. Lehen mailako jokalariek aholkuak eman zizkidaten, eta nire jokoko zenbait gauza zuzendu. Ikasitakoak Osasunan jarri-

**"BARTZELONA MUNDUKO TALDERIK ONENA DA; SADARREN JOKATZEA SEKULAKOA IZANGO DA"**

ko ditut praktikan; ongi etorriko zaizkit. Lehen mailan esperientzia handiagoa dute, hori nabaritzen da, eta nik euren aholkuak biziki eskertzen ditut. Entrenatzaileak, bigarren entrenatzaileak eta jokalariek asko lagundu ninduten. Oso pozik nago.

**Emakumezkoen Lehen Mailaren azpitik sortutako kategoria berrian, Lehen Federazioa izenekoa, jokatzen du aurten Osasunak. Hamahiru jardunaldi jokatu, Eibar da liderra (26 puntu) eta Osasuna laugarren (25 puntu). Osasunaren helburua Lehen Mailara igotzea dela argi dago.**

Bi talde igoko dira Lehen Mailara: lehen sailkatua, zuzenean, eta 2. eta 5. postu artean sailkatutakoek jokatuko duten play-offeko irabazlea. Gure helburua, bai ala bai, Lehen Mailara igotzea da. Aukera badugu, baina aurten sortu duten liga berri horretan talde hobereak daude, sailkapenean guztiak gertu gaude, eta ez da erraza izango, maila handia dagoelako. Ezin gara erlaxatu. **Denboraldi ona egiten ari zara; golegileen artean zaude.**

Aurre denboraldi oso ona egin nuen, baina liga hasieran egokitzea kosta egin zitzaidan. Duela gutxi, Barça B-ren kontra jokatu ondoren, Kakun Mainz entrenatzaileak ezker hegaleko postuan jarri zidan. Hasieran harrituta geratu nintzen, iaz aurreko puntan jarri ninduelako, baina ezkerreko bandan geratu naiz eta partida onak egiten ari naitzela uste dut. Oso gustura nago. **Ilbeltzaren 7an Logroño hartuko duzue Taxoaren, ligako partidaren baina zale gorritxoak guztiz aztoratu dituen partida jokatu duzue ilbeltzaren 10ean, Sadarren: Erregina Kopan Lehen Mailako Bartzelona izango duzue aurkari.**

Sekulakoa izango da, Bartzelona munduko talderik onena edo onenetarikoa delako. Esperientzia ederra izango da eta, gainera, Sadarren jokatu dugu. Bartzelonak ligan ez du partidarik galdu; soilik Bayern taldearen kontra galdu dute. Zaila izango da, baina bukaerara arte borrokatuko dugu. Ea Erregina Kopan aurrera egitea lortzen dugun, baina ez dugu ahaztu behar aurreko gure helburu nagusia Lehen Mailara igotzea dela. Nolanahi ere, Bartzelonaren kontra jokatzea mundiala izango da. Eguntan atseden hartuta, abenduaren 27an hasiko gara entrenatzen, urte hasiera indartsua dugulako.

# Xakearen magia, Sakanan eta gertutik

**XAKEA** 37 xakelarik parte hartu zuten Hiriberriko Kontzeju eraberrituan jokaturako Sakanako Xake Txapelketa lehiatuan, tartean 15 sakandarrek. Mariano De Pablos eta Saioa Torres izan ziren txapeldunak, eta Aimar Yeregi lehen sakandarra

**Maidar Betelu Ganboa** HIRIBERRI Larunbatean XXII. Sakanako Xake Txapelketa jokatu zen Hiriberrin, Sakanako Mankomunitateak Zaldi Beltza Xake Taldearen laguntzarekin antolatutakoa. Guztira 37 xakelarik eman zuten izena, xakeaz gozatzeko prest. Sakanakoa, aldi berean, Nafarroako Txapelketa izan zen 1.900 ELO puntutik beherakoa, eta 20 minutuko zortzi partidatara jokatu zen.

Berritu berria dagoen Hiriberriko Kontzejuan bildu ziren xakelariak, Jesus Uriz Elizaldek epaile lanak egin zituela. Hark esaten zuen txanda bakoitzean zeinek zeinen kontra aritu beharra zuen, eta zein mahaitan. Arerioak eskua eman, eta berehala hasten ziren lanean. Pieza mugitu eta erlojua sakatu, horixe egin beharreko mugimendua, xakelariak guztiz kontzentratuta zeudela. Batzuetan jokaldiak mantsoak ziren, segidan. Beste batzuetan, aldiz, pentsa-



Partida batzuk ikusgarriak izan ziren, ikusleen ikusmina piztu zutenak.

tzeko tarte nahikoa hartu ondoren, azkar-azkar, dida batean egiten zituzten mugimenduak, bata bestearen atzetik. Ikusgarria.

Mankomunitateko kirol teknikari Dani Echavarrri lehenengoz aritu zen txapelketan, "eta xake-

lariak duten maila ikusgarria dela esan beharra dago. Maila onean aritzeko fenomeno hutsa behar duzu izan. Nik, momentuz, jokatu ditudan hiru partidak galdu egin ditut, baina ongi pasatzen ari naiz, eta asko ikasten

ari naiz. Pena dut arratsaldean ezingo dudalako aritu".

## 15 sakandar

Goizeko jardunaren ondoren, guztiek Txitera elkartean bazkaldu zuten eta arratsaldean jarraitu zuten txapelketak. Jesus Uriz epaileak bukaeran eman zuten emaitzen berri. Horrela, Donibane taldeko Mariano De Pablos izan zen txapelduna (6,5 puntu), Mikel Gurea klubeko Sergio Anguasen aurretik (6,5 puntu). Orvinako Mikel Otxoa Aldazek (6 puntu) osatu zuen podiuma. Sakandarrei dagokienez, Aimar Yeregi Bakaikoa izan zen lehena, sailkapenean seigarren (5,5 puntu). Emakumezkoetan Berriozar klubeko Saioa Torres izan zen irabazlea, sailkapen absolutuan 27. postuan sailkatuta (3 puntu).

Adinei dagokienez, 8 urtez azpiko sailkapenean Sakanako Alazne Viana izan zen lehena (33. postuan, 2 puntu). 10 urtez azpiko sailkapena Ekaitz Mayor-domok irabazi zuen (26. postua, 3 puntu), 12 urtez azpiko sailkapena Orvinako Mario Antonanzasek (bosgarren, 5,5 puntu) eta 14 urtez azpikoa Berriozar klubeko Antso Vidondok (hemeretzigarren, 4 puntu).

Aipatzekoa da 15 sakandarrek parte hartu zutela, albiste oso ona, azkenaldian aritzen zirenen kopurua murrizta baitzen. Poztekoa da gazteak txapelketetan hasi izana. Etorkizuna, badago.

## Sakandarrak txapelketan

Sakanako Xake Txapelketan 15 sakandar lehiatu ziren

### Gizonak:

1. Mariano De Pablos	6,5 p.
6. Aimar Yeregi	5,5 p.
7. Juan A. Cerro	5 p.
10. Ismael Anton	5 p.
13. Victor Barriga	4,5 p.
16. Kaiet Viana	4,5 p.
17. Ekain Galarza	4 p.
18. Mikel Castellano	4 p.
20. Iker Iturrioz	4 p.
22. Koldo Flores	3,5 p.
25. Cesar Razkin	3,5 p.
30. Mikel Markotegi	2,5 p.
35. Mikel Reguera	1 p.
36. Dani Echavarrri	1 p.
37. Joseba Arbilla	0,5 p.

### Emakumeak:

27. Saioa Torres	3 p.
33. Alazne Viana	2 p.



**"XAKELARIEK DUTEN MAILA IKUSGARRIA DA, ASKO FENOMENO HUTSAK DIRA" DANI ECHAVARRI**

## Mendigoizale Eguna indar handiagorekin itzuli da

**MENDIA** Mendizale asko igo ziren Aralarra, azken edizioetan baino nabarmen gehiago

**Maidar Betelu Ganboa** ARALAR Pandemiagatik azken bi urteetan ez zen Mendigoizaleen Eguna ospatu, eta aurten indartsu itzuli zen. Hala nabarmendu zuten Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioko presidente Martin Montañes Alsasuak. "Mendizale eta klub gehiago etorri dira Mendigoizaleen Eguna Handira. Normalean 11-12 klub etorri ohi dira, eta aurten 18 klub izan dira, inoiz baino jende gehiago". Santutegiko aparkalekuan hamabost autobus inguru zeuden, eta baita Guardetxen ere.

Mendigoizaleen Eguna Nafarroako federazioarendako egun handia da, "baina bereziki mendizaleendako eguna da" gaineratu zuen. Aralarra oinez igo ondoren, aspaldiko ezagunekin biltzeko eguna, zendutako mendizaleak oroitzeko eguna eta urtea modu ederrean despeditzeko eguna izan zen. Askok zendutako mendizaleen aldeko mezan parte hartu zuten, eta euren mendi materiala bedein-katzera eraman zuten, Aralarako Mikel Goiaingerua gurtzearekin batera.



Auzatearen ondoren dantzatzera animatu ziren mendizale asko.

Izan ere, Mendigoizale Eguna zendutako mendizaleak omentzeko egun gisa jaio zen. 1964. urtean, urte horretan hildako hiru mendizale gogoratzeko ekitaldia egin zen Aralarren eta hortik aurrera urtero errepika-

tu izan da. Aurten askoren gogoan Jesus Mari Garisoain, "Txumarra" zegoen, Anaitasuna klubeko kide ezaguna eta Mendigoizaleen Eguneko sustatzaile nagusietako bat izan zena, aurten zendua.

## Auzate bikaina

Festa borobiltzeko, auzate ederraz gozatu zuten guztiek, ostatuan. Trikitixa eta akordeoi doinuei jarraiki, kantu eta dantzak izan ziren nagusi. Aurten Lagunak eta Amaya klubak izan ziren auzatea antolatzearen ardurdunak, "eta dagoeneko datorren urteko edizioa antolatzeko borondatea azaldu dute beste klub batzuetatik". Salda beroa, txistorra, urdaia, gazta, txorizoa... denetatik dastatu zuten.

Montañesek azaldu duenez, 14.450 lizentzia inguru ditu Nafarroako Mendi Federazioak, joan zen urtean baino 382 gehiago, pandemiaren ondotik izandako goranzko joera gaintuz. "Taz Nafarroako Futbol Federazioak baino lizentzia gehiago izan genituen; aurten ez dakigu baina hortxe egongo gara".





Tenis pistaren kokapena, gorriz.

## Altsasuk tenis pista izanen du datorren urtean

**TENISA / FUTBOLA** Zelandin jasoko da. Bestalde, Dantzaleku futbol zelaiko belardia berriko da

**Alfredo Alvaro** ALTSASU Nafarroako Gobernuak prestatu dituen aurrekontuei aurkeztutako zuzenketen artean Altsasu eta kirolari lotutako bi onartu dira. Altsasuko Udalak foru administratibotik zuzenean 400.000 euro jasoko ditu. Berritasuna da udalak tenis pista bat eraikiko duela. Javier Olló Martínez alkateak jakinarazi duenez, Zelandi igerileku estaliaren mende baldean egingen da tenis pista. Hara Zelandi kiroldegitik sartuko da. Lanak heldu den urtean egingen dira. Horretarako, 146.410 euro jasoko ditu Altsasuko udalak kirol azpiegitura berria egiteko. Aipatu zuzenketa Geroa Bairen parlamentuko taldeak aurkeztu zuen. Argudiatu zuenez, "tenis udal eskola izanik ere, hura praktikatzeko azpiegitura egokia ez duen herriko kirol bakarra da". Zuzenketa aho batez onartu zen.

Bestalde, emaitza bera izan zuen Dantzalekuko futbol zelai-ko belardi artifiziala eta argite-ria berritzeko Geroa Baik aurkeztutako zuzenketak. Egiteko horietarako Altsasuko Udalak 253.590 euro jasoko ditu Nafarroako Gobernutik. 400.000 euro horiek Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontingentzia Funtsaren diru sailetik aterako dira.

# Betiko San Silvestreen itzulera Sakanan

**ATLETISMOA / TXIRRINDULARITZA** Sakanan ospatuko diren bost San Silvestreetako arduradunek urtea korrika edo bizikletan despeditzeko deia egin diete sakandarrei. Berrikuntzak daude, Olaztik, esaterako, arratsaldetik eguerdira aurreratu baitu proba

**Maider Betelu Ganboa** SAKANA Pandemiagatik azken urteetako murrizketak atzean utzita, "betiko San Silvestreak" berreskuratu nahi dituztela diote probetako antolatzaileek, eta Sakanako proba guztiak aterako dira aurrera, berrikuntzekin.

### Bizikletarekin Urbasara

Altsasu Kirol Elkarteak antolatzen duen 28. Urbasako Igoera-San Silvestre Zikloturista martxa ez lehiakorrean, aldaketa nabarmena da tropela Dantzalekutik abiatuko dela, 12:00etan. Izena ematea egunean bertan egin beharko da, Dantzalekun, 11:45era arte (10 euro, kamiseta). 18 urtetik gorakoendako proba.

### Olaztin, eguerdira aldaketa

Olaztik 19. San Silvestreak no-bede garrantzitsua du: arratsaldean izan ordez, eguerdian jokatuko da, 11:30etik aurrera, frontoi paretik abiatuta. "Proba aurreratzea egokiagoa iruditu



Iaz pandemiarengatik multzoka jokatu zen Altsasuko San Silvestrea, ohi baino goizago.

zaigu, arratsaldea libre izan eta lasaiago ibiltzeko" azaldu du Sutegiko presidente Saioa Martinezek. 2019 urtean 111 korrikalarik hartu zuten parte eta helduen proban Raul Audikana eta Maitane Vilariño gailendu ziren.

Lau kategoriatan jokatuko da: txikiak (7 urtera arte), 8 eta 11 urte artekoak, 12 eta 15 urte artekoak (zirkuituari itzuli bat, 1.240 m) eta helduak, 16 urtetik gorakoak (lau itzuli, 5 km inguru). Izena ematea egunean.

### Uharte eta Irurtzun

Aralar Mendik antolatuta, Uharteko San Silvestre Traila 16:00etan abiatuko da Itxesi parketik. Haurrendako bi proba egongo dira, eta kadeteek eta helduek San Vicenteko Bira egingo dute (4,5 km). Izena ematea proba baino lehen egingo da. Bestalde, Pikuxarrek antolatutako Pikubestreak hasieratik harrera ederra izan zuen Irurtzunen. 16:30ean haurrak abiatuko dira, Pikuxarretik (hiru distantzia), eta 17:00etan 16 urtetik gorakoak (4,2 km). Izena ematea, zabalik, online.

### Altsasun, June Kintana

Altsasuko San Silvestrea-Mario Lopez Memoriala Nafarroako beteranoena da. Aurten 42. edizioa izango da. 2021 urtean pandemiagatik taldeka jokatu zen, herritik kanpo. 158 korrikalarik hartu zuten parte, eta Izaskun Beunza eta Israel Arbizu gailendu ziren. "Aurten gure betiko San Silvestrea berreskuratuko dugu, 2019an 650 izan ginen guztira, eta jendea oso gogotsu dago" azaldu du Dantzaleku Sakanako Peio Vergarak. 18:00etan haurren probak jokatuko dira, ibilbide aldatetarekin, eta 14 urtetik gorakoek proba nagusian hartuko dute parte (5 km). Izena ematea zabalik dago Dantzaleku Sakana webgunean (5 euro, bazkideak izan ezik). Trafikoa itxita egingo da. June Kintana Larraza disko jaurtitzaila bakaikuarrak Altsasun egingo da, "eta oso pozik gaude".



ISKIZA SAKANA

## Erakustaldi mundiala

**GIMNASIA ERRITMIKOA** Larunbatean Zelandi kiroldegia bete egin zen Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko taldeek —eskola taldea, Nafar Kirol Jokoetako taldea eta oinarritzko mailako taldea— eta Olaztik Sutegi taldeko eta Arbizuko eskolako gimnastek eskainitako Gabonetako gimnasia erritmikoko erakustaldia ikusteko. Ikasturtean barna mimoz

prestatutako denetarikoreografia eta ariketak eskaini zituzten, eta Sakanako gimnastak zoragarri aritu ziren.

Iskizako koordinatzaile Olaia Agirrek azaldu duenez, ia 90 gimnastak parte hartu zuten erakustaldian, "eta oso ongi atera zen guztia. Oso pozik gaude, ikasitako guztia primeran erakutsi baituzten".

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 23

## Olatzagutia Gazteendako jarduera.

Bubble balls, kiroldegian.  
17:00-19:00 7 eta 12 urte  
bitartekoak.  
19:00-21:00 12 urtetik  
aurrerakoak.

## ALTSASU Gazte agenda.

Party zozketa.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte  
gunean.

## ALTSASU Kalejira.

Altsasuko Musika eta Dantza  
Eskolako haize metal taldeekin gabon  
kanten kalejira.  
19:30ean, musika eskolatik.

## OLATZAGUTIA Emanaldia.

Txen DJ-aren *Blach&White Techno*  
saioa.  
23:30ean, Barandi tabernan.

## LARUNBATA 24

## ETXARRI ARANATZ

## Mobilizazioak.

Sareren Gabonak: elkartasun  
denda, etkez etzeko diru  
bilketa eta gaupasa  
Leku Onan.

## ETXARRI ARANATZ

## Elkarretaratzea.

Jardunen Amnistiaren bidetik  
*independentzia eta sozialismorantz!*  
kontzentrazioa.  
20:00etan, plazan.

## IGANDEA 25

## ALTSASU Elkarretaratzea.

*Euskal preso eta iheslariak etxera.*  
20:00etan, plazan.

## LAKUNTZA Kontzertua.

Muga Zero taldearen kontzertua.  
22:00etan, Sorginak tabernan.

## ASTELEHENA 26

## ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.  
12:00etan, udaletxearen aurrean.

## ZIORDIA Futbol txapelketa.

Gabonetako Ziardiko Torneoa.  
Ziardiko Running taldeak antolatuta,  
frontoian.  
Ziardia, Olatziko Sutegi, Uhartea  
Arakilgo Aralar Mendi eta Goizueta  
Arano taldeak ariko dira.  
16:00 Haurrak.  
18:30 Helduak

## ASTEARTEA 27

## URDIAIN Parkea.

Haurrendako parkea: puzgarriak,  
jolasak eta abar. Ondoren,  
txokolatada.  
16:00etataik 19:30era, frontoian.

## IRURTZUN Zinema.

Euskarazko filmaren emanaldia.  
17:30ean, kultur etxean.

## BAKAIKU Antzerkia.

Bea pailazoaren *Donna*, iraganeko  
gabonetako mamua. Gure etorkizuna  
hobetuko du familiarteko  
antzezlanaren emanaldia.  
17:30ean, elkartean.



ALTSASU Gabriela Barrio Tea en la azotea artistaren *La diosa Mari y sus criaturas* trapuzko panpinen erakusketa.  
Urtarrilaren 8ra arte. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.



OLATZAGUTIA Jaiotzen erakusketa.  
Urtarrilaren 8ra arte. Astelehenetik larunbatera 17:00etatik 20:00etara  
eta igandetan eta jaiegunetan 13:30etik 14:30era eta 17:30etik  
20:30era. Egoitzan.



ALTSASU Adela Sánchez artistaren *Oraina eta atzera begirakoa* erakusketa.  
2023ko urtarrilaren 1etik otsailaren 1era.  
Iru Bide jatetxean.

## ZORION AGURRAK



Luis  
Urte askuen Luis! Eutsi goiari eta jo ta ke denak  
etxeratu arte! Hi launek!



# Bazkide zozketa

## ABENDUKO SARIAK

### 1. SARIA

Amaia Gerrikagoitia Uriarte (Arbizu)

### 2. eta 3. SARIAK

Jose Luis Erdozia Mauleon (Etxarri Aranatz)

Josean Markez Cano (Olazti)

Amaia Zelaia Garcia (Altsasu)



**Er<sup>v</sup>iti** aluminio  
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | [info@aluminioserviti.es](mailto:info@aluminioserviti.es)



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

## ASTEAZKENA 28

### IRURTZUN Txapelketa.

Haur eta helduen arteko futbol txapelketa euskaraz. Aizpea euskara taldeak antolatutako *Euskal Ekitaldiak* programaren barruan.  
**12:00etan, kiroldegian.**

### ALTSASU Ipuin kontalariak.

Musas y Fusas ipuin kontalarien *Kikimuya, animaliak eta zu emanaldia*. Sarrera oso gutxi gelditzen dira.  
**12:00etan, lortia kultur gunean.**

### ARBIZU Ipuin kontalaria.

Ines Bengoetxea ipuin kontalariaren emanaldia.  
**18:00etan, liburutegian.**

## OSTEGUNA 29

### IRURTZUN Parkea.

Eguberrietako parkea: puzgarriak, jolasak...  
**17:00etatik 20:00etara, frontoian.**

### ARBIZU Jolas gunea.

Jolasak eta txokolatada.  
**17:00etan, kiroldegian.**

### ETXARRI ARANATZ ZinUEMA.

*The Snow Queen* animaziozko filmaren emanaldia.  
**17:30etan, kultur etxean.**

### ALTSASU Kalejira.

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako saxo taldeen kalejira.  
**19:00etan, musika eskolatik.**

### IRURTZUN Film laburrak.

Piku Gabonak: Film laburren emanaldia Urko Mauduit animatzailearen eskutik.  
**19:30etan, Pikuxarren.**

## OSTIRALA 30

### ALTSASU Gazte agenda.

Urte amaiera gaua. DJ Death Bass eta afaria.  
**17:00etatik 01:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.**

### ALTSASU Gazte agenda.

Sexgune.  
**17:30etik 20:30era, Intxostiapunta gazte gunean.**

### IHABAR Hitzaldia.

Olatz Berastegiren *Emozioen mundua* hitzaldia.  
**18:30etan, herri etxean.**

### LAKUNTZA Kontzertua eta

### aurkezpena.

Alfredo eta Iker Piedrafitaren Barrikadaren eta Diker taldeen abestien bertsioren kontzertu akustikoa. Ondoren, Alfredo Piedrafitak *Del ruido al silencio* fauna argazkien liburua aurkeztuko du.  
**Arratsaldean, kultur etxean.**

### SAKANA Kontzentrazioak.

Sareren urteko azken kontzentrazioak.  
**19:00 Iturmendiko plazan eta Urdiaingo Herrientzeko atayen.**  
**19:30 Altsasuko udaletxearen aurrean.**  
**20:00 Irurtzango San Martin kaleko 7. zenbakian, Irañetako frontoian eta Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan.**

### ALTSASU Kontzertua.

Haize Berriak eta lagunak: 25 urte musikan kontzertua.  
**19:30etan, Burunda frontoian.**

### ALTSASU AGAbonak.

AGA Caigo show-lehiaketa.  
**22:30etan, gaztetxean.**

### OLATZAGUTIA Emanaldia.

Stepi Selektah taldearen reggae eta danceball kontzertua.  
**23:30etan, Barandi tabernan.**

## LARUNBATA 31

### OLATZAGUTIA Kontzertua.

Chuchin Ibañez mariatxiaren kontzertua.  
**12:00etan, Barandi tabernan.**

### SAKANA Kontzentrazioak.

Sareren urteko azken kontzentrazioa.  
**19:00 Lakuntzako plazan.**  
**20:00 Uharteko Arakilgo San Juan plazan eta Bakaikuko Erdiko iturrian.**

## IGANDEA 1

### ALTSASU Elkarretaratzea.

*Euskal preso eta iheslariak etxera.*  
**20:00etan, plazan.**

## ASTELEHENA 2

### ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.  
**12:00etan, Zumalakarregi plazan.**

## ASTEARTEA 3

**ARBIZU Jolas gunea.**  
Jolasak eta txokolatada.

## ZINEMA

### ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

**A todo tren 2: Ahora son ellas** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Ostirala 23 19:00  
Igandea 25 19:30

**Filmoteka Nafarroan: Ana de día** film dokumentalaren emanaldia  
Astelehena 26 19:00

**El viaje a París de la señora Harris** gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 29  
Igandea 1

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

**La emperatriz rebelde** zineforum filmaren emanaldia  
Igandea 25

**Tori y Lokita** zineforum filmaren emanaldia  
Osteguna 29  
Igandea 1

**17:00etan, kiroldegian.**

### IRURTZUN Zinema.

Familiarteko gaztelaniazko filmaren emanaldia.  
**17:30etan, kultur etxean.**

### IHABAR Ipuin kontalaria.

Ipuin kontaketa Izaskun Mujika ipuin kontalariarekin.  
**17:30etan, herri etxean.**

### ALTSASU AGAbonak.

Oñatiko Gaztetxearen *Mari* filmaren aurkezpena.  
**19:00etan, gaztetxean.**

### IRURTZUN Proiekzioa.

Piku Gabonak: Mendiaren inguruko proiektzioa.  
**19:30etan, Pikuxarren.**

## ASTEAZKENA 4

### ETXARRI ARANATZ Parkea.

Gabonetako jolas parkea: puzgarriak...  
**11:00etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, frontoian.**

### ALTSASU Tailerra.

Musas y Fusas konpainiaren *Tum Tum Clap Body Percussion* tailerra. Sarrerak agortuta.  
**12:00etan, kultur gunean.**

### ARBIZU Parkea.

Haurrendako jolas parkea.  
**16:30etan, kiroldegian.**

### IHABAR Tailerra.

Euskal dantza tailerra.  
**18:00etan, herri etxean.**

### IRURTZUN Bertso saioa.

Piku Gabonak: Bertso desafioa.  
**18:30etan, Pikuxarren.**

## OSTEGUNA 5

### ALTSASU AGAbonak.

Elkartasun gaua: Alerta Gorria eta Sofokaos taldeen kontzertuak.  
**00:00etan, gaztetxean.**

## OSTIRALA 6

### ALTSASU Kintoak.

2022ko kintoen erregeen eta erreginen hautaketa.  
**12:00etan, Foru plazan.**

### LAKUNTZA Emanaldia.

Haizaldik gabonetako abestiak eskainiko ditu.  
**Arratsaldean, herrian zehar.**

### ALTSASU Gazte agenda.

Mahai jolasak.  
**18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

## LARUNBATA 7

### IRURTZUN Txapelketa.

VIII. Open Frontenis Irurtzun. Frontoian.  
**08:00etan, hasi; 20:00etan, finala.**

### ALTSASU AGAbonak.

Mus txapelketa.  
**16:00etan, gaztetxean.**

### LAKUNTZA Erakusketa eta hitzaldia.

Zabalarte Mendi Taldeak antolatutako Aralarko Guardetxearen argazki erakusketa eta Patxi Xabier Razkin Aralarko Elkarteko presidentearen proiektuaren nondik norakoaren hitzaldia.  
**Arratsaldean, kultur etxean.**

### ALTSASU Gazte agenda.

Pintxo txapelketa.  
**18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**

### ALTSASU Ikuskizuna.

*Geometria* familiarteko ikuskizuna.  
**19:00etan, lortia kultur gunean.**

## IGANDEA 8

### ETXARRI ARANATZ ZinUEMA.

*Nire zirkua* animaziozko filmaren emanaldia.  
**17:30etan, kultur etxean.**

### ALTSASU Elkarretaratzea.

*Euskal preso eta iheslariak etxera.*  
**20:00etan, plazan.**

## ASTELEHENA 9

### ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.  
**12:00etan, udaletxe aurrean.**

## OSTEGUNA 12

### ETXARRI ARANATZ ZinUEMA.

*Black is Beltza II: Ainhoa* Fermin Muguruzaren filmaren emanaldia.  
**19:00etan, kultur etxean.**



## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

## ALOKAGAI

**Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat:** Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatuzko bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, kumina eta officea ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

## LAN ESKAITZA

**Ziurdiko Udalak bi lanpostu betetzeko deialdia zabaldu du:** Merezimendu lehiaketa bidez zerbitzu anitzetako langilea, liburuzain lanpostuak betetzeko deialdia zabaldu du, eskabideak aurkezteko epea hilaren 27ra arte dago zabalik.

**Sakanako Mankomunitateak 27 lanpostu egonkortuko ditu:** Merezimendu lehiaketa bidez maila ezberdinetako 25 lanpostu egonkortuko ditu (20 hondakin zerbitzuko langileak, planta ardura-duna, arkitekto tekniko bat, gizarte hezitzailea eta ur ofizial lanpostu bat, administrari laguntzailea) euskarazko maila ezberdinak eskatzen dira lanpostuaren arabera. Hondakin zerbitzuan oposizio lehiaketa bidez peoia eta txofer peoia lanpostuak bete nahi dira, euskarazko B1 maila eskatzen zaie. Deialdietan parte hartzeko interesa dutenek abenduaren 27ra arteko epea dute eskabideak

Sakanako Mankomunitatean aurkezteko.

**Irurtzungo Udala bi begiraleren bila:** Merezimendu lehiaketa bidez beteko ditu C mailako bi lanpostuak. Eskabideak aurkezteko epea abenduaren 27an amaitzen da.

**Urdaingo Udalak hiru lanpostu bete nahi ditu:** merezimendu lehiaketa bidez bete nahi ditu zerbitzu anitzetako langilea, liburuzaina eta garbitzaile lanpostuak. Deialdian parte hartu nahi dutenek abenduaren 27ra arte dute epea eskabideak aurkezteko. Informazio gehiago <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/41> eta <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/42> loturretan.

**Imozko Udalak Latasko Biltzia kudeatzeko deialdia zabaldu du:** Dokumentazioa aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 4an, 13:00etan amaituko da. Informazio gehiago [www.plazaola.org](http://www.plazaola.org) web orrian, [udala@imozt.eus](mailto:udala@imozt.eus) helbidera idatziz edo 948 503 364 telefonoz deituz.

**Iturmendiko Udalak administrari lanpostuak betetzeko oposizio lehiaketa egingo du:** Administrari ofizial lanpostuak C mailakoa izango da eta C1 eskara hizkuntza eskakizuna izatea eskatu dute. Informazio gehiago [www.iturmendi.eus](http://www.iturmendi.eus) web orrian. Deialdian parte hartu nahi dutenek abenduaren 27ra arteko epea dute eskabideak aurkezteko. Informazio gehiago <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/243/3> eta <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/74>.

**Olazitiko Udalak 29 lanpostu betetzeko deialdia egin du:** Udalera hamasei langile, Erburua-Olazi enpresa publikorako zortzi eta musika eskolarako bost. Lanpostuetan interesa

dutene eskabidea udalari hilaren 27a baino lehen aurkeztu beharko diote. Informazio gehiago <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/40> <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/41> eta <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/42> loturretan.

**Imozko Udalak Latasko Biltzia kudeatzeko deialdia zabaldu du:** Dokumentazioa aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 4an, 13:00etan amaituko da. Informazio gehiago [www.plazaola.org](http://www.plazaola.org) web orrian, [udala@imozt.eus](mailto:udala@imozt.eus) helbidera idatziz edo 948 503 364 telefonoz deituz.

**Iturmendiko Udalak administrari lanpostuak betetzeko oposizio lehiaketa egingo du:** Administrari ofizial lanpostuak C mailakoa izango da eta C1 eskara hizkuntza eskakizuna izatea eskatu dute. Informazio gehiago [www.iturmendi.eus](http://www.iturmendi.eus) web orrian. Deialdian parte hartu nahi dutenek abenduaren 27ra arteko epea dute eskabideak aurkezteko. Informazio gehiago <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/243/3> eta <https://bon.navarra.es/iragarkia/-/texto/2022/247/74>.

## LEHIAKETA

**Animatu Memekaren lehiaketa parte hartzera:** Memek gustoko badituzu abendu honetan Memeka erabiltzeak saria izango du. Umorea zure indargunea bada, lehiaketa parte hartu eta saria irabaz dezakezu. Euskarazko memekak sortzeko duzun abilitzia

jarri beharko duzu martxan, besterik ez! Nola? Sortu memea [www.memeka.eus](http://www.memeka.eus) plataforma bidez. Bertan informazioa gehiago. Bi sari egongo dira, bozka gehien dituenari 200 euroko saria eta memea duen kamiseteta eta Instagrameko zein [@pixelled.euseko](https://www.instagram.com/pixelled.euseko) [memeka.eus](https://www.instagram.com/memeka.eus) kontuetan like gehien duenari 150 euroko saria eta kamiseteta. Animatu.

## OHARRAK

**Crowdfunding Kanpaina Josefina Arregui Klinika berritzeko:** Josefina Arregui Klinikaren Lagunen Elkarteak diru bilketa hasi du Eguneko Zentroa berritzeko eta handitzeko, helburua 75.000 euro lortzea da. Diru ekarpenak [www.josefinaarregui.com](http://www.josefinaarregui.com) web orriaren bidez egin daitezke, txartel, Bizum edo kontu zenbaki baten bidez ekarpenak eginez edo Laboral Kutxan eta La Caixa banketxeetan ireki diren kontuetan dirua sartuz. Kanpaina 2023ko otsailaren 15era arte iraungo du. Informazio gehiago klinikaren web orrian edo 948 563 850 telefonora deituz.

**Aralarko Santutegiko museoa bisita gidatuak egiteko aukera:** Aralarko Santutegiko museoa ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta

17:00etan. Igandetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

**Etzarri Aranazko Gaztetxokoak zabalik:** maiatzaren 28ra arte egonen da zabalik asteburuetan; larunbatetan 17:00etatik 21:00etara eta igandetan 17:00etatik 20:30era. Gaztetxokoan LHko 6.maila eta DBH 4.maila bitarteko gazteei zuzenduta dago eta oraindik izena emateko aukera dago. Matrikula ordaindu behar da. Informazio gehiago nahi duenak udaletxera jo dezake edo 606 239 008 telefonora hots egin dezake edota [kultura@etzarriaranaz.eus](mailto:kultura@etzarriaranaz.eus) helbide elektronikora idatz dezake.

**Guardetxeko argazkiak biltzeko deialdia:** Lakuntzako Zabalarte Elkarteak Aralarko Guardetxe agertzen diren argazkiak biltzen dabil, eta erakusketa bat egin nahi dute "Guardetxe proiektuaren egoera eta egin daitezkeen hurrengo ekintzei buruz hitz egitea" du helburuarekin. Halako irudiren bat duenak udaletxera bulego ordutegian joan daiteke argazkia eskaneatuko dute eta jabeari bueltatuko diote momentuan bertan.

**Adur rol jolasa euskaraz eta doakoa:** Telegram bidez jolasten den rol joko bat jarri du martxan Ene-

ko Azedok. "Adur - Azken erroka" Euskal Erdi Aro mitologikoan girotuta dago, Iruñetik hasi eta Euskal Herri guztitik bidaiatzeko aukera ematen du, izaki mitologikoak aurkitu eta abenturak biziz. Telegram bidez esteka honetan sar zaitzke: <https://t.me/+ANOUJSCts0M210>.

**Arropa bilketa:** Baduzu erabiltzen ez duzun arroparik, eta ez dakizu zer egin? Arakilgo udalaren arkupean bilketa gune bat irekitzera goaz. Hila-beteko lehen azoka egunean, asteartean, 11:00etatik 13:00etara. Errotxapean dagoen Elkarteak Laguntza Elkarteak duen egoitzara eramango dugu, bilketaren biharamunean. Itxipiru Taldea 620 254 230 eta Mank Anitzartean 648 070 710 antolatuta.

**Lakuntzako jendeari Gaztetxokotik:** Gaztetxokoak lakuntzarrei jakinarazi dienez, etxean erabiltzen ez dituzten eta gaztetxokoan erabilgarriak izan daitezkeen objektuak hara eramanez ditzakete. Kiroletako materiala, mahai jolasak, eskulanetarako materiala, etab. Gaztetxokoak Uriz kalean dago eta igandetan 16:30tik 20:00etara egoten da zabalik, orduan eramanez ditzakez gaizak.

[iragarki@guaxe.eus](mailto:iragarki@guaxe.eus)  
[www.iragarkilaburra.eus](http://www.iragarkilaburra.eus)



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskela@guaxe.eus](mailto:eskela@guaxe.eus)

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €


prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.


► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

## EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 23




Larunbata, 24



Igandea, 25



Astelehena, 26



## JAIOTZAK

- Aitor Irigoien Irazoki, abenduaren 13an Etxarri Aranatz
- Olaia Vera Gonzalez, abenduaren 16an Altsasun
- Arkaitz Tadeo Tapia Loo, abenduaren 17an Altsasun

## HERIOTZAK

- Maria Esther Evarista Mañeru Igoa, abenduaren 15ean Etxarri Aranatz

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGÜ, A TU LAGO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak  
Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

Eneida C. M. eta Erkuden R. B.

ARBIZU

*Hemeretzi kamera* Toureren istorioa kontatzen zuen lehenengo nobela idatzi zuenean Jon Arretxekez zuen pentsatzen pertsonaia horrekin bederatzi liburu idatziko zituenik. "Esperimentua" izan zen lehenengoa, "baina oso ondofuntzionatu zuen eta jendeak estimua hartu zion". Bera estimu horretaz konturatzen da eta horregatik jarraitzen du Toure "sufriarazten". Toureren bederatzigarrena *Lyrice garaia* deitzen da, eta Bilboko San Francisco auzoan kokatzen da. Liburuaren azalean bi elementu daude areazko erloju bat, denboraren igarotzea adierazten duena, "Toure denboraren kontrako jolas batean sartu delako", eta musker gorri bat, "Toureren jarraitzaileek badakite zer den musker gorri bat; Sa Kené".

**Nondik dator izenburua?**

Hitz joko bat da. Lirika musika edo poemak dira, baina kasu honetan "y"-z eta "c"-z idatzita dago. Bertolt Brechtek esan zuen "ez direla garai onak lirikarako". Lirika garaia izan daiteke opera bat edo kontzertu bat entzutera joatea. Baina liburu honetako pertsonaiak ez dira hain ondo bizi. Haietako garai hau errealtate gordin horretatik ihes egiteko da, eta hori drogatuz lortzen dute. *Lyrice* hori da, droga bat. Berez mina kentzeko edo arintzeko botika bat da, pena ahaztarazteko; baina gaur egun droga moduan erabiltzen da. Yonkiei oso erraz errezetatzen zaie, eta haiek horrekin trafikatzeko dute. Modako droga dela esan daiteke. Dokumentatzeko nobela kokatzen den tokira joaten naiz beti, eta kasu honetan Toure San Francisco auzora, Afrika txikia den horretara, itzuli da eta hor ibili naiz: jendearekin hitz egin dut, hezitzaileekin, elkarrekin... Kaleko hezitzaile bati galdetu nion ea gazteek gasolina eta disolbatzailea esnifartzeko jarraitzen zuten eta esan zidan orain hasi direla *lyrice* hartzen.


**Zergatik San Franciscora itzuli?**

Aurreneko nobeletan Toure urrun ibili da, agian denbora luze egian. San Franciscon ibiltzen zen hasieran, gero Afrikara bota zuten, Nafarroako edozein herri izan zitekeenera ihes egin zuen, gero Parisera eta Paristik Madrilerara. Igual bada ordua etxera, kakotxen artean, itzultzeko. Gogoan neukan

# "Tourek ikusten duena ikusten dut, bere ikuspuntutik"

JON ARRETXE IDAZLEA

Arbizun bizi den idazleak 'Lyrice garaia' liburuak kaleratu du, Toureren bederatzigarrena. San Francisco auzora itzuli dira idazlea eta detektibea



Jon Arretxe idazlea 'Lyrice garaia' liburuarekin.

bere betiko lagunak, laukote hori osatzen dutenak, berriz elkartzeko: Cristina Sa Kené, Osmán pisukide beteranoa laguntzen diona eta Xihab bere tabernari berezia. Beste alde batetik, urteotan auzoan gauza asko pasa

**"SAKONEAN DAGOEN ARAZOA POBREZIA DA; EZ DA KAMERA GEHIAGOREKIN KONPONTZEN"**

dira eta horren berri eman nahi nuen. Nahiko erraz neukan kritika sozial pixka bat egiteko: gauzak zelan aldatzen ari diren gure gizartean. Aproposena San Franciscora itzultzea zen.

**Nola opatu duzu?**

Toureren barruan sartu eta bere begietatik ikusten dute, lehenengo pertsonan kontatzen dut nobela. Nik ikusten dut baina Toureren ikuspuntutik begiratzen dut. Toure etorkin ilegala da, ahal den moduan bizi dena, aberatsa izan dena Parisen eta Madrilen, baina dena galduta hona itzuli behar izan duena. Nahiko aldatuta topatu ditu gauza batzuk. Polizia gehiago eta kamera gehiago dago. Lehenengo nobelan hemeretzi kamera zeuden, due-la hamar urte hemeretzi kamera zeudelako. Azken urteotan auzo elkarte bat salatzen ari da delinkuentzia eta segurtasun eza igo dela eta oso gogor exijitu du polizia eta kamera gehiago. Kaletik zoaz eta lehen Ipar Afrikako jatorrizko jende taldeak zeuden tokietan orain polizia dago. Hortik uxatzen dituzte. Nahiko modu oldarkorrean sartzen dira. Ni egon naizenean, egunero egon dira istiluak.

**Beraz, nobelakoa egiazkoa da?**

Fikzioa da, baina agertzen diren eszenak benetakoak dira. Nik ikusitakoak edo lagunak batek ikusitakoak eta kontatutakoak dira. Gainera, gauza pixka bat zentzugabea da: badaude gune

beltz konfliktiboak, ez gehiegi, baina badaude eta horiek desegiten saiatzen dira. Polizia iristen da, jende hori sakabanatzen da, eta poliziak alde egiten duenean berriro elkartzen dira hor. Pixka bat erridikulua da. Bitartean, tentsio giroa eta bronkak egoten dira. Ipar afrikarrak Plaza Nagusira tokialdatu dituzte, eta toki hori ijitoen eremua zen eta horrela ikusten dute haiek. Ijitoak haserretzen dira eta istiluak sortzen dira. Ez dute ezer konpontzen. Hemen sakon-sakon dagoen arazoa pobrezia da; bazterkeria. Hori ez da konpontzen ez kamera hobetoak eta sofistikuak ipiniz ez polizia eramanez ordu jakin batzuetan. Gero dena bertako normaltasunera itzultzen delako.

**Prostituzioa ere agertzen da nobelan.**

Beste gai nagusietako bat da. Pertsonaia batzuk benetakoak dira. Nahiko sinesgaitzak dira. Badago prostituta ohi bat orain prostitutei laguntzen diena Askabide elkartearen bidez, kaleko prostitutei laguntzen dien elkarre bat. Ni ateratzen ziren gau horietan haiekin ibili naiz, eta oso pertsonaia bitxiak ezagutu ditut. Nobela sartzeko erabili ditut. Bide batez dagoen lege proiektuaren gaia ateratu da. Gaia oso korapilatsua da.

**Toure aldatu da?**

Bai, nahiko aldatu da. Hasierako nobeletatik pixkanaka joan da aldatzen. Hasieran Toure gizajo bat zen, maneiatzen zuten nahi zuten bezala, bizirauteko ahal zuena egiten zuen eta ez zeukan batere maliziarik. Baina bizitzak gaizki tratatu du, gauza oso gordinak gertatu zaizkio eta espabilatzen joan da. Gaur tipo gogorra da; errukirik sentitu gabe egiten ditu gauzak, arriskutsua ere izan daiteke. Hala eta guztiz ere irakurleek oraindik maite dute.

**Bederatzigarrena. Eroso zaude?**


Bai, oso eroso, eta ez nuen imajinatzen nik beti aldatu egin dudalako. Bidaia literaturarekin hasi nintzen eta aspertu nintzen, ganberradak idazten eta aspertu, beldurrezkoa, haur literatura, atzerrian kokatutako nobela beltzean sartu nintzen... Pertsonaia bat sortu nuen eta nik uste nuen aspertuko nintzela hiru edo lau nobela pasatuta. Baina feedbacka sentitzen dut eta konturatzen naiz asko estimatzen dutela. Jendeak herrietan dauden afrikarrekin identifikatzen du.



OLAZTIKO LIBURUTEGIA

## Liburutegia ezagutzen

Olaztiko liburutegiaren 40. urteurrenaren harira, Domingo Bados eskolako haur eta lehen hezkuntzako ikasleek bisita egin zuten abenduaren hasieran. Rosa Iriarte izan zen gidaria. Txikienei liburuen eta zerbitzuen berri eman zien. Amaitzean, marrazkiak egin zituzten. LHkoei bisita gidatua egin zien, eta bukatzeko ginkana egin zuten.



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

## Etxera



Jasone Etxebeste, ezkerrean goian, klarinete laukote lehiaketan parte hartu zuten irurtzundarrekin. UTZITAKOIA

# Klarinetearen munduan murgiltzeko maratoia

Irurtzango zazpi klarinete ikaslek Zumaiako Klarinete Maratoian parte hartu dute. Talde bat sariarekin etorri da: laukote txapelketaren irabazleak izan dira. Ikastaroaren 21. edizioa izan da abenduaren 14tik 19ra

### IRURTZUN

Klarinete Maratoia deitutako klarinete "ikastaro" bat egin dute 21 urtetan, abenduaren erdialdean, Zumaian. Lau egunez Euskal Herriko klarinete jotzaileak bildu dira entseatzeko eta igandean astean zehar ikasitako abestien kontzertua eskaini zuten. Antolakuntzak jakinarazi zuenez aurtengoa azken edizioa izan da. Zumaian bildutako ehun bat klarinete jotzailearen artean, Irurtzango musika eskolako zazpi ikasle eta Jasone Etxebeste irakaslea izan ziren.

"Helburua Euskal Herriko klarinete jotzaile pila bat elkartzeko eta igandean kontzertua ematea da", azaldu du Etxebeste. Aurten abenduaren 14tik 18ra egin dituzte entseguak, asteazkenetik ostiralera arratsaldean eta larunbatean goizez. Joan etorrian egon dira irurtzundarrak, eta larunbatean Zumaian lotara gelditu ziren. "Beraiendako mundu horretan egotea da, klarinetearen mundu horretan. Sakanan kla-

rinetea ez da oso ohikoa, eta bat-batean Zumaiara joan eta ehun jotzailetatik gora daude". Parte hartu zuten irurtzundarrekin 9 urte 15 urte arte dituzte.

### Kontzertuak eta beste

Taldekatuak entseguak eta azken eguneko kontzertua ez ezik, maratoiak iraun bitartean hainbat ekimen egiteko aukera izan dute klarinete jotzaileak. Esaterako Carlos Casadó Espainiako Orkestra Nazionalen klarinete jotzaileak masterclass bat eskaini zuen, eta taldekako klaseak eta goi mailako ikasleei bakarkakoak ere eman zizkien. Gasteizko Kontserbatorioko ikasleen kontzertua izan zen, baita luthier bat edo instrumentuak konpontzen dituen per-

tsona baten hitzaldia izan zuten ere. Maratoiaren barruan antolatzen duten beste ekimen garrantzitsu bat laukote lehiaketa da.

Laukote lehiaketan hiru kategoriatan zeuden: Ludoteka 8 eta 12 urte arteko ikasleendako, Gaztetxola 13 eta 16 urte arteko gazteendako eta Jaialdi 17 eta 20 urte bitartekoendako. Klarinete ikasle irurtzundarrekin lehiaketa lehenengo bi kategoriatan parte hartu zuten: Berezi Carrascal, Maider Pires eta Jare Osacar lehenengo kategorian, eta Nahia Cantera, Jone Azkona, Lujan Mata eta Aiora Dorai bigarrenen. Guztira, hamabost taldek parte hartu zuten eta txikienek saria Sakanara ekarri zuten. "Kategoria bakoitzean bost bat talde zeuden eta saria ekartzea asko da. Ez zen erraza izan".

Urval Ensemble, ZUMB, Nazioarteko Musika jaialdiko irakasleek antolatutako lehiaketa; maratoiaren zuzendariak, Mardilgo Casadók, Andoaingo irakasle batek eta Etxebestek.

## IRURTZUNGO MUSIKA ESKOLAKO KLARINETE IKASLEEK LAUKOTE LEHIAKETAN PARTE HARTU ZUTEN



Santa Zezilia egunean Haize Berriak bandako kideak eta kide izandakoak elkartu ziren. UTZITAKOIA

# Beste 25 urte gehiagorako

Haize Berriak bandaren 25. urteurren urtea izan da 2022 eta ospatzeko 'Haize Berriak eta lagunak. 25 urte musikan' kontzertua emanen dute abenduaren 30ean, ostirala, Altsasuko Burunda frontoian. Hemeretzi talde ariko dira

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU  
Duela 25 urte Sakanako musika eskoletara "joandako batzuk" eta musika zaletasuna zuten zenbait musikari Altsasuko Gure Etxean bildu ziren "zerbait" egiteko asmoarekin. Ideiak botatzen hasi ziren eta, azkenean, musika banda bat sortzea erabaki zutelaz azaldu du Ekhiñe Lumbreras zeharkako txirula jotzailea eta Haize Berriak bandako kideak. Banda baino gazteagoa da Lumbreras, baina kontatu diotenez, 1997an sortu zen ofizialki Haize Berriak banda elkarte bezala. Mende laurdena ospatzeko abenduaren 30ean, ostirala, 19:30ean, Altsasuko Burunda frontoian kontzertu erraldoia eskainiko dute. Haiekin ibarreko hemeretzi elkarte ariko dira; Haize Berriak eta lagunak. 25 urte musikan.

"Beharra bazegoen. Aurretik fanfarre bat egon zen eta he-

rrietan bandak zeuden, baina urteekin desagertu ziren". Banda bi helburu nagusirekin sortu zutelaz azaldu du Lumbreras: "Alde batetik, banda kultura berreskuratzea nahian eta, bestetik, musikariaren ikusgarritasuna azaleratzeko". Duela bi hamarkada baino gehiago musikariek aukera gutxi zituztela gaineratu du altsasuarrak.

Hasieratik Sakanako banda ibar mailakoa izan zela azaldu du musikariak: "Sakanako musika eskoletako ikasleak ziren sorreran egon zirenak". Banda 25 kiderekin hasi zen, eta gaur

**"BEHARRA  
BAZEGOEN; BANDA  
KULTURA  
BERRESKURATZEKO  
SORTU ZUTEN"**

egun, Sakanako hamar herritako 45 musikaririk osatzen dute Haize Berriak: Arakil, Irurtzun, Uhartte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Altsasu eta Olazti. Ia Sakanako osoko ordezkariak dira. Inoizko bandarik handiena da, baita gazteena ere; musikariaren erdiak 25 urte baino gutxiago dituzte.

25 urte hauetan lau zuzendari pasatu dira Haize Berriak-etik: Mario Fernandino izan zen bandako lehenengo zuzendaria, ondoren Juanjo Torres aritu zen, Luis Orduñak hamalau urtez zuzendu zuen banda eta 2019an utzi zuen; David Sanchez erriberriarrak hartu zuen ardura, bandaren etapa berri bat hasiz.

Haize Berriak bandak astean bi entsegu egiten ditu, bakoitzak bi ordu ingurukoak; astearte arratsaldeetan eta larunbat goizetan. "Lehenengo entseguan jo

behar ditugun obren irakurketa orokor bat egiten dugu. Hortik aurrera gauzak zuzentzen eta xehetasuna zehazten lanean jartzen gara, hori guztia zuzendariaren laguntzarekin". Zuzendariaren lana etxean ikasitakoa "pixka bat" bideratzea dela azaldu du Lumbrerasek. "Entseguetan jotzeko aurretik etxean bakoitzak berea landu behar du".

Musikariak ez ezik, bandako hamaika kidek batzordea osatzen dute eta bakoitzak ardura bat duela esan du Lumbrerasek. "Sare sozialak kudeatzea, ekonomiaren gaia, sarreraren salmenta eta abar, kartelak egin eta jarri...". Zuzendariak juntan ere "eskua sartzen" duela aipatu du, "ez da koordinazio burua, baina ardura badu".

## Ospakizun handia

2022. urtean "latza-latza" izan da Haize Berriak bandarako. Urtero banda oso aktiboa da, baina urteurrenaren harira, kontzertu gehiago eman dituzte. Urtea inauterietan hasi zutelaz aipatu du Lumbrerasek, Piñata inauteri egunean kalejira egin zuten. Martxoan %100 Haize Berriak deitutako kontzertua eman zuten, eta 25 urtetan bandak konposatzea eskatu dituen obrak eta mustu dituztenak berreskuratzea zitzuten. "Iortia osoa bete genuen, gainera pandemia ondoren izan zen eta kontzertu oso polita izan zen".

Maiatzean musika eskoletako ikasleekin kontzertu bat egin zuten Altsasun, "eta niretako oso berezia izan zen Irurtzango eskolako irakaslea izan nintzelako eta nire ikasle batekin jo nuelako. Txikitako emozio horiek gogoratzea izan zen". Kontzertu honetatik sortu zen Haize Txikiak Banda, musika eskolen eta bandaren arteko zubia egiten duen banda. Udan bildu zen lehenengo bandaren harrobia, eta abenduaren 26tik 30era Iortia kultur gunean bilduko dira berriz musikari txikiak trebakuntzarekin jarraitzeko. Urtarrilaren 8an, 12:30ean, kontzertua emanen du Haize Txikiak Bandak Iortia kultur gunean eta urtarrilaren 22an, 13:30ean, Lakuntzako pla-

**ABENDUAREN 30EAN,  
OSTIRALA, KONTZERTU  
HANDIA EMANEN  
DUTE HAIZE BERRIAK  
BANDAK ETA LAGUNEK**

zan, sansaastin festen barruan. "Musika eskoletatik izena ematen dute eta eskaria handia dago. Ilusio handiarekin hartu dute. Etorkizuna badago". Beste 25 urtetarako eta gehiago.

Uda mugitua izan zuen ere Haize Berriak bandak: San Juan eguneko Altsasuko ohiko kontzertua, Irurtzun, sanferminak, Bakaiku... Irailean Ziordian egon ziren: "Kontzertu berezia izan zen Karlos Sanchez txistulari eta konpositorearen laguntzarekin Ziordiko Zortzikoa berreskuratzea gurelako eta Etorkizuna dantza taldeak parte hartu zuelako ere". Besteak beste, Txistu eta Banda kontzertu bat eman zuten eta umoregile batekin ere kontzertuak eman dituzte. "Elkarlana oso garrantzitsua da".

## Sakana

"Nik uste historia egingo dugula. Ez da inoiz horrelako proiektu bat Sakanan aurkeztu; ibarreko ia elkarte gehienek parte hartuko dute kontzertu batean. Gauza handia da". Abenduaren 30ean kontzertu bat baino askoz gehiago prestatuko du Haize Berriak bandak. Bandarekin hemeretzi musika eta dantza talde ariko dira: Etxarri Aranatzko eta Erkudengo Ama abesbatza, Erkuden Ezeolaza, Irantzu Gonzalez dantza eskolako dantzariak, Txorongo Txaranga, Los del Rayo, Enrike Zelaia, Trasteando, Altsasuko Erraldoiak, Eztanda Txaranga, Altsasuko inauteri batzordea, Gaite-roak, Iskiza Sakanako gimnastak, Etorkizuna dantza eskolako dantzariak, Altsasuko Txistulariak, Deserrite eta Elektrokela Elektrotzaranga, baita Haize Txikiak banda ere. Orain arte, bandak eta parte hartuko duen talde bakoitza bere kabuz aritu da entseguak egiten, eta aste honetan elkartuz joango dira lana batzeko.

*Haize Berriak eta lagunak. 25 urte musikan* kontzertuan oso ongi lagunduta egon ez ezik, Joselu Ruiz de Gordoak konposatutako *Sakana* lana mustuko dute. "Bandaren 25 urteurrenagatik egin du lan hau eta ibararren inguruan egin du".

Kontzerturako sarrerak bost eurotan eros daitezke Iortia kultur gunearen txarteldegian edo webgunean; bandako bazkideek eta 12 urtez beherako haurrek bi eurotan.

# "Ia 40 urte hauengatik oso eskertuta gaude"

Tipi-tapa Oinetako nagusien azken eguna da gaur. Lau hamarkadaz "denetariko" oinetakoak saldu dituzte Altsasuko San Juan kalean Nerea Segura eta Gerardo Mazkianek, Dori Diazekin batera. Herriko denda txikietan erosteko deia egin dute

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

## 1 Noiz ireki zenuten denda?

1984an Zapatillas Mari Paz bezala zabaldu zen, eta txapinak eta kirol oinetakoren bat saltzen hasi ginen. Espartinak ere bagenituen. 1989an berreraikuntza bat egin genuen eta Calzados Mari Paz jarri genion. Autozerbitzua zen. 1996an beste berreraikuntza bat egin genuen eta apalategien ordezkari egurrezkoak jarri genituen. Jendea gogoratu da. 1991tik 1998ra Donostian denda bat izan genuen, Tipi-Tapa, eta izena erregistratu genuen. 2006ko irailaren 11n lokal berria mustu genuen izen berriarekin. Calzados Mari Paz deitzen dionik ere bada oraindik.

## 2 Zergatik zapata denda?

Zapatilekin hasi ginen zapatak garestiak zirelako. Jendea emakumezkoen zapatangatik galdetzen hasi zen eta ekartzen hasi ginen. Gero ea gizonezkoen oinetakoak ekarriko genituen, eta pixkanaka-pixkanaka ekartzen hasi ginen. Gero haur oinetakoak...

## 3 Nola aukeratu zenuten zer ekarri?

Bezerearen arabera zen. Baziren erosten genituen gauzak gutxi gorabehera nori saldu behar genizkion banekiena. Denborarekin ikasten da. Badiara modak ibarretik gelditu gabe pasa direnak eta beste batzuk baietz. Kremaierazko Salomon-ak asko saltzen ziren, baita Dr. Martens-ak ere.

## 4 Nola garatu da moda?

Takoidun zapatak desagertuko direla esango nuke. Oso takoi gutxi erabiltzen dira. Orain, deportibak eramaten dira, ez bakarrik kirola egiteko, baizik eta egunerokotasunerako.



Nerea Segura eta Gerardo Mazkian Tipi-Tapako jabe eta saltzaileak eta Dori Diaz saltzailea.

## 5 Eta sakandarrek nola janzen dituzte oinak?

Sandalia Sakanikolak eskatzen zizkiguten; mendiko botak. Udan ere eramaten direnak. Txiruka botak, esaterako, urte osoan zehar saltzen ziren.

## 6 Nongo bezeroak izan dituzue?

Sakanako, Lautadako eta Goierriko jendea ere etorri da. Familia bereko lau belaunaldiak pasatu dira; haur zirenetik egun arte haien seme-alabekin etortzen direnak.

## 7 Zertan nabarmentzen zineten?

Denetarik genuen. Txapinak, zapatak, sandaliak, botak, kirol oinetakoak... Pertsona batek baratzerako botak eta ezkontza baterako zapatak eros zitzaizkeen. Horrelako denda bat ez dago hirietan ere. Markako kirol oinetakoak zapata denda batean erostea oso zaila da, aitzindariak izan ginen eta borrokatuz mantentzea lortu dugu. Guztira 40 hornitzaile baino gehiagorekin egin dugu lan.

## 8 Zergatik ixten duzue?

Asko pentsatu dugun zerbait izan da. Negozioa ez doa gaizki; hainbat faktore egon dira. Alde batetik, ez genuen belaunaldi erreleboa izango semeek ez zutelako hartuko. Ikasketak egin dituzte eta haien bidea egin dute. Lokala saltzeko aukera etorri zen eta bizitza lasaia bat izateko aukera etorri zen. Bestela, ikusten genuen behera zihoala eta agian itxi beharko genukeela eta gero lokala urtetan hutsik geldituko litzatekeela. Gero, Dori Diaz ere jubilatzen zen. Gurekin 24 urtez egon da saltzaile, dena izan da, ahizpa bat bezala. Ordezkatu ere egin behar genuen.

## 9 Denda bat izatea sakrifkatua ere bada, ezta?

Ordu asko dira, eta denda zurea denean etxera arazoekin joaten

zara. Denda ez da bakarrik saltzea, ia garrantzitsuagoa da generoaren erosketa, biltzea, antolatzea... Opor gutxi. Ezkondu ginenean ere denda pentsatzen ezkondu ginen.

## 10 Pena ematen dizue?

Pena bai. Gure bizimodua izan da, eta aurrera eramateko borrokatu dugu. Oso eskertuta gaude urte hauetan izan ditugun bezero guztiei. Herriko denda txikien apustua egiten jarraitzea eskatzen diogu jendeari. Herriko dendak laguntzen jarraitzeko, guri lagundu diguten bezala.

## 11 Eta orain zer?

Pixkanaka joan gara ixten. Azkenaldian goizez irekitzen genuen bakarrik. Iruditzen zaigu lehen denbora gehiago genuela.

2023an ere bidean elkar gaitzen.  
Bide on!

**gik**  
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA